

43



LAN-KOADERNOAK
CUADERNOS DE TRABAJO
WORKING PAPERS

Genero ikuspegiko aurrekontuak: politika publikoen ekitatearen aldeko apustu feminista

Yolanda Jubeto

Globalizazioaren erronkak gobernu aurrekontu ekitatiboak lortzeko tokiko saiakeren aurrean

Diane Elson



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
NAZIOARTEKO LANKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA
UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO - EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA



Genero ikuspegiko aurrekontuak: politika publikoen ekitatearen aldeko apustu feminista

Yolanda Jubeto

Globalizazioaren erronkak gobernu aurrekontu ekitatiboak lortzeko tokiko saiakeren aurrean

Diane Elson

Yolanda Jubeto Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea. Ekonomia Aplikatua I. Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea.

Diane Elson Soziologia Saila Essex Unibertsitatea.



Argitalpen hau "Generoa Garapenerako Hezkuntzan: Iparra-Hegoa eztabaida-gaiak emakumeen agenda politikorako" izeneko proiektuaren barruan dago; beste jarduera batzuen artean, Garapenerako Lankidetzan feminismoa sartzeari ahalbidetuko duten oinarriko gaietara buruzko gogoeta egiteko espazioak sortuko dira, eta, era berean, laguntzarako materialak eta tresnak sortuko dira, emakumeen berdintasun ezari, desberdintasunari eta mendekotasunari aurre egiteko.

Laguntzailea:



Finantzaileak:



HEGOA

www.hegoa.ehu.es

(UPV/EHU) Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre etorbidea, 83
48015 BILBO

Tel.: 94 601 70 91 • Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.es

Arabako Campus-eko Liburutegia UPV/EHU
138 kutzatila - Nieves Cano, 33
01006 VITORIA-GASTEIZ
Tel. • faxa: 945 01 42 87
hegoagasteiz@ehu.es

Genero ikuspegiko aurrekontuak:
politika publikoaren ekitatearen aldeko apustu feminista
Yolanda Jubeto

Globalizazioaren erronkak gobernu aurrekontu ekitatiboak
lortzeko tokiko saiakeren aurrean
Diane Elson

Hegoa Lan Koaderno
43zk.
Otsaila 2008

L.Z.: Bi-1473-91 • ISSN: 1130-9962

Euskerazko itzulpena: Labayru Institutua
Inprimaketa: Lankopi, S.A.
Diseinua eta Maketazioa: Marra, S.L.



Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 2.5 Generikoa Espainia
Dokumentu hau Creative Commons-en lizentziarekin dago. Aske zara lan hau kopiatzeko, banatzeko eta publikoki hedatzeko, betiere kontuan hartuta lanaren kredituak aitortu behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza xedetarako erabili. Ezin duzu lan hau bestelakotu, eraldatu edo lan eratorririk sortu hartatik abiatuta.

Baimen osoa:
<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/2.5/es/legalcode.eu>

Aurkibidea

Genero ikuspegiko aurrekontuak:	5
politika publikoen ekitatearen aldeko apustu feminista	
1. Sarrera	5
2. Genero Ikuspegiko Aurrekontuen (GIA) helburuak	7
3. Nazioarteko esperientziei buruzko azalpen laburra	9
4. Prozesu horietan erabilitako metodologia nagusiak	12
5. Beste metodo interesgarri batzuk	19
6. GIA ekimenetako partaideak	26
7. Egungo lorpenak eta erronkak	28
Laburtzapenak	29
Bibliografia	29
Globalizazioaren erronkak gobernu aurrekontu	31
ekitatiboak lortzeko tokiko saiakeren aurrean	
1. Sarrera	31
2. Herritarren partehartzearen bidezko tokiko aurrekontu partehartzaileak sortzeko saiakeren hastapenak	32
3. PHBAren globalizazioa	34
4. PHBA eta irabazietan oinarritutako globalizazioa	36
5. Ekitatezko aurrekontuen espazioa areagotzeko helburuarekin tokiko eta maila nazionaleko ekintzen elkarketa	38
6. Ondorioak	40
Erreferentziak	40

Genero ikuspegiko aurrekontuak: politika publikoen ekitatearen aldeko apustu feminista

Yolanda Jubeto¹

I. Sarrera

Genero ikuspegitik egindako aurrekontu publikoen azterketa, nahiko ekimen berria izan arren –lehen esperientzia praktikokak abiarazi zirenetik bi hamarkada baino ez dira igaro–, politika ekonomikoari buruzko eztabaida feministen gai nagusienetakoa bihurtu da.

Estrategia hori emakumeen eta gizonen eskubide berdintasunaren alde hainbat hamarkadatan zehar egindako lanaren fruitua da. Estrategia mugimendu feministek bultzatu dute, batez ere, eta nazioarteko, nazio mailako zein tokiko akordioetan gauzatu da, administrazio publikoentzat derrigorrezkotasun maila desberdinak ekarri dituelarik.

Prozesua Nazio Batuen Erakundeko (NBE) Karta Magnarekin jarri zen abian, 1945ean; eta erakunde horrek 1975etik aurrera bultzaturiko Emakumeei buruzko Nazioarteko Biltzarren bidez sendotu da, Estatu Kideentzat loteslea den araudia sortzerakoan². Gure gizarteetan enkistatuta dauden generoagatiko diskriminazioak gainditzeko asmoz hartutako erabakien

artean hauek azpimarratu behar dira: alde batetik, ekintza positiboko politiken aldeko apustua, eta, bestetik, genero berdintasunaren xedea politika publiko guztietan txertatzeko premia. Xede hori mundu osora zabaldu zen, 1995ean Beijingen egindako Emakumeei buruzko IV. Nazioarteko Biltzarrean sortutako Ekintza Plataformaren bidez. Ondorioz, “genero zeharkakotasuna” Genero Ikuspegiko Aurrekontuen (GIA) aldeko argudioen oinarria bihurtu da, aurrekontu publikoa politika ekonomikoaren lehentasunak islatzen dituen funtsezko tresna delako. Horregatik, aurrekontuak genero ikuspegitik aztertzerakoan, emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren xedea politika publikoetan zenbateraino txertatuta dauden ebalua dezakegu.

Australiako gobernuak bere aurrekontuak generoaren ikuspegitik aztertzen hasi zenetik, 80ko hamarkadaren erdialdera, horrelako esperientziak mundu osora zabaldu dira. Gaur egun, ekimen horiek berrogeita hamar herrialdetan baino gehiagotan daude abian, administrazioaren hainbat mailatan. Ekimenak kokaturik dauden errealitate desberdinak direla eta, aniztasun handia sortu da, erabilitako metodologiaren, agente

¹ Eskerrak eman nahi dizkiet María José Martínez, Mertxe Larrañaga eta Mónica Gil lankideei, egin dizkidaten ekarpen interesgarriengatik. Dударik gabe, agiri hau hobetzen lagundu didate. Esan gabe doa, hala ere, agirian egon daitezkeen gabeziak lerro hauen egilearen erantzukizuna direla.

² NBEk bultzaturiko Emakumeei buruzko Nazioarteko Biltzarren bilakaera oso argi azaltzen da Itziar Hernández eta Arantxa Rodríguezzen *Cuaderno de Trabajo de Hegoa* lanean (1996). Emanuela Lombardok (2006), bere aldetik, prozesu honentzat funtsezkoak diren zenbait kontzeptu sakondu ditu; besteak beste, aukera berdintasuna, ekintza positiboko politikak, emakumeen jabekuntza eta, azken hamarkadan, Genero Zeharkakotasuna (*gender mainstreaming*).

partaideen eta lortu nahi diren helburuen aldetik. Azterketa metodologiei dagokienez, sarritan, alderdi asko partekatzen dituzten teknika batzuk erabiltzen dira, bakoitza bere testuinguru zehatzera egokitu ondoren. Orokorrean, erabilitako metodo analitikoaren helburua zera da: kontu publikoak talde sozialen askotariko errealitate eta premietara egokitzea, sexuen arteko bereizketa eginez. Horrela, aurrekontuetan gabeziak antzemanaz gero, lehentasunak finkatzeko orduan aldaketak proposa daitezke.

Praktika hau munduan zehar zabaltzen joan den neurrian, bere aukerak handitu egin dira; eta, gaur egun, bizi kalitatearen aldetik oso interesgarriak diren ikuspegi batzuekin elkartzen ari da, giza garapen iraunkorarekin adibidez. Ikuspegi horrek ekonomiaren ohiko ikuskera gaintzen du, eta zera aldarrikatzen du: politika ekonomikoaren arrakasta neurtzeko funtsezko parametroak talde jakin bateko emakume eta gizonen banakako nahiz taldeko premien betetze mailan oinarritu behar direla. Ikuspegi integrala da, beraz.

Orain arteko esperientziak bultzatu eta dinamizatu dituzten agentei dagokienez, horiek ere aldatu egiten dira ekimenaren testuinguruaren arabera. Ekimen batzuk, esaterako, administrazio barrutik sustatu dituzte eragin handiko pertsona batzuek, emakumeek eta gizonen gizarte egituraren posizio desberdina daukatela ohartuta; horrek ezarritako neurri politikoaren ondorioak eta eragina baldintzatzen ditu. Alabaina, jarrera hori ezin da orokortu; izan ere, administrazio publikoaren barruan, politika publikoa neutrala delako ideia oso zabalduta dago. Neutraltasun hori neurri politikoaren eraginaren ustezko izaera unibertsalean dago oinarrituta. Izan ere, neurriok "komunitate osoari" on egiteko diseinatzen dira, gizonen eta emakumeen artean bereizketarik egin gabe, eta ezta komunitateko talde desberdinen artean ere. Pertzepzio horrek, beraz, ez du kontuan hartzen lanaren egungo banaketa sexuala. Banaketa horrek sexu bakoitzari esleitutako jardueren balorazio sozialari eragiten dio, eta emakume eta gizonetik itxaropen sozialei ere bai; horri, gainera, klase soziala eta arrazaren arabera egiten diren bereizketak gehitu behar zaizkio.

Horregatik, gehienetan, talde feministak edo emakumeen diskriminazioaren kontra dauden Gobernu Kanpoko Erakundeak (GKE) izaten dira politika publikoaren, eta zehazki aurrekontu publikoaren, ustezko genero berdintasunaren inguruan interesa erakusten dutenak, prestakuntza jasotzen dutenak eta ideia horri aurre egiten diotenak.

Talde bultzatzailea edozein dela ere, burututako esperientzia

guztien abiapuntuko ideia zera da: politika publiko bat eraginkorra izateko, ezinbestekoa da berau baliabide ekonomikoekin hornitzea. Hortaz, behar-beharrezkoa da aurrekontu publikoaren esleitzen diren baliabideak aztertzea, beren asmo deklarazioak alde batera utzita, administrazio publikoaren benetako lehentasunak zeintzuk diren ikusteko.

Laburbilduz, ekimen horiek oinarrituko helburu komun batzuk dituzte, nahiz eta oso anitzak izan. Desberdintasunak hurrengo alderdietatik etor daitezke: esperientziaren jatorria (administrazio barrutik edo kanpotik), esperientzia kokatuta dagoen administrazio maila (gobernu zentrala, eskualde edo tokiko gobernu...), azterketaren eremua eta zenbaterainokoa (gastuei edo sarrerei buruzko politika zehatzak; sektore, sail edo arlo jakin batekoak; aurrekontu osoarenak; ezarpen edota legerian egindako aldaketa zehatzak), aztertutako aurrekontu zikloaren fasea (ex ante, ex post), erabilitako tresnak, emaitzak aurkezteko modua (aurrekontuari erantsitako agiria, aurrekontuaren zati gisa edo berezita), esperientzien iraupena. Ekimen horietako askok, gainera, nazioarteko erakundearen babesa jaso dute; adibidez, Nazio Batuen Emakumearentzako Garapen Fondoarena (UNIFEM), Nazio Batuen Garapenerako Programarena (NBGP), Commonwealtheko Idazkaritzarena, edo garapenerako lankidetzako agentziena –Kandako CIDA eta Suediako SIDA, besteak beste-. Babes horrek ekimenen ezaugarrietan izango du eragina.

Nazioartean abiarazitako ekimenak eta haiek sortutako itxaropenak kontuan izanik, gure asmoa zera da: alde batetik, xedeen nahiz erabilitako metodologia, tresna eta adierazleen deskribapen laburra egitea, eta, bestetik, ekimen horien ahalmen eta mugei buruzko gogoeta egitea, oztopoak eta erresistentziak ahaztu gabe, lorpenak eta erronkak azpimarratuz. Gizarte zibila bultzatutako esperientzietan jarri nahi dugu arreta; izan ere, genero berdintasunaren alde diharduten taldeen partaidetza oso onuragarria izan daiteke benetako demokrazia lortzeko borrokan. Ekimen horiek, ekitatearekin batera, kudeaketa publikoaren gardentasuna handitzen dute, eta zeregin politikoan erantzukizunak onartzera bultzatzen dute. Horrez gain, tokiko ekimenak ere azpimarratu nahi ditugu; berrienak izanik, gehienak oraindik esperientziaz fasean daude, baina garrantzitsuak dira.

2. Genero ikuspegiko aurrekontuen helburuak

“The budget reflects the values of a country –who it values, whose work it values and who it rewards,... and who, and what, and whose work it doesn’t”³

Pregs Govender
Hegoafrikako parlamentaria⁴

Aurrekontu publikoen planifikazio, prestaketa, egikaritzea eta ebaluazio prozesuen azterketari buruzko ekimenak asko ugartu dira eta eztabaida bizia piztu dute. Aurrekontu horiek, izan ere, eragin handia dute komunitateko emakume eta gizonen bizi baldintzetan. Eztabaida erabili beharreko tresna eta tekniketarik hasi, eta prozesuaren izenera arte zabaltzen da. Prozesuak izen asko eduki ditu: hasieran, “emakumeen aurrekontuak” (women’s budgets), eta, geroago, “genero aurrekontuak” (gender budgets), “generoarekiko sentikorrek diren aurrekontuak” (gender sensitive budgets) edo “genero auditoriak” (gender audits). Gaur egun, anglosaxoiek gehien erabiltzen duten terminoa⁵ “gender-responsive budgets” da; euskarazko baliokidea “generoarekiko sentikorrek diren aurrekontuak” izango litzateke, edota “genero ikuspegiko aurrekontuak”, ingelesezko adierazpenak ñabardura gehiago dituen arren. Gaztelaniaz ere “presupuestos con enfoque de género (PEG)” erabiltzen da (Andia eta Beltrán, 2003), besteak beste. Guk esamolde berbera erabiliko dugu, hau da, “genero ikuspegiko aurrekontuak (GIA)”.

Lehen hurbilketa batean, GIA honela deskriba genezake: aurrekontu prozesuaren azterketa bat, politika publikoek emakume eta nesken duten eragina ezagutzeko helburua duena, gizon eta mutilengan duten eraginarekin alderatuta. Hasierako estudio gaia kontabilitateko agiria izaten da; agiri horrek hurrengo ekitaldirako aurreikusitako sarrera eta gastu publikoak jasotzen ditu. Horrek zera esan nahi du: alde batetik, administrazioek beren fondoak zertarako erabiltzen dituzten ikertu behar dela –azterketa gehienek xedea hori da–, eta, bestetik, fondo horien jatorria zein den. Aurrekontuko sarreraren azterketa (iturriak eta osagaiak) ekimen horien funtsezko elementua da. Izan ere, horrela, gizarteko segmentu bakoitzak aberastasunaren sorrerari

eta politika publikoek finantzaketari egiten dion ekarpena nola baloratzen den ikus daiteke. Praktikan, ordea, ikerketa gehienak gastuaren azterketatik abiatzen dira, eta, beraz, gu eremu horretaz bakarrik arituko gara.

Hasiera-hasieratik, aurrekontuen azterketa horiek bi xede nagusi izan dituzte. Lehenik, gobernuen politikak emakumeentzako dakartzaten ondorioak argi identifikatu eta ebaluatzeko. Eta, bigarrenik, neurri txikiagoan bada ere, gobernuetako sail eta agentziek emakume eta nesken bideratzen dituzten aurrekontu esleipenen kantitatea eta kalitatea handitzea (Sharp et al. 1990:2).

EBko emakumeen eta gizonen Aukera Berdintasunerako Batzorde Aholkulariaren arabera (2003), GIAk genero zeharkotasuna aurrekontu prozesuan txertatzearen emaitza dira. Horrek zera dakar berekin: genero ikuspegia aurrekontu prozesuko maila guztietan sartzea, eta diru sarrerak nahiz gastuak berregituratzea genero berdintasuna sustatzeko. Lan benetan zaila da, hortaz.

Aurrekontu prozesu osoa aztertzea eskatzen du, eta zeregin konplexua denez, batzuetan zatika egiten da lan hori. Batzuetan, asmoak edo gastu eta sarreraren planak aztertzen dira (ex ante), eta, bestetan, aurrekontua behin egikaritu eta kitatu ondoren egiten da ebaluazioa (ex post). Hala ere, zentzuzkoena bi alderdiak aztertzea da. Hau da, azterketak aurrekontu prozesuaren faseak har ditzake barne (asmo handien kasuan, fase guztiak), eta aurrekontu publikoak islatzen duen kontabilitate agirian jasotako zenbatekoetatik haratago doa.

Horrek ez du esan nahi datu kuantitatiboak garrantzitsuak ez direnik. Izan ere, datu horien bidez, aurrekontua zertarako erabiltzen den ikus dezakegu (eta, beraz, zertarako ez den erabiltzen ere bai), eta nori egiten dion onura. Azterketa horiek egiteko oinarriko baldintza bat aurrekontu neurrien onuradunak diren taldeei buruzko informazioa edukitzea da, sexuren arabera bereizita. *A priori* hain oinarrikoa eta erraza dirudien premisa hori praktikan erronka izugarria da administrazioentzat, oraindik ez baita ohikoa datuak horrela sailkatzea. Gainera, aurrekontuak genero ikuspegitik aztertzeko, ez da

³ “Aurrekontuak herrialde baten balioak islatzen ditu –nori ematen zaion garrantzia, zer motatako lanak baloratzen diren, nortzuek jasotzen dituzten onurak... eta zeintzuk, eta noren lana ez diren baloratzen”-. Pregs Govender.

⁴ “Hegoafrikako Emakumeen Lehenengo Aurrekontuaren” hitzaurrea (1996), Rhonda Sharp eta Ray Broomhillen *Budgeting for equality: the Australian experience* lanean jasoa, *Feminist economics* 8 (1), 2002, 25-47. or.

⁵ Budlender eta Hewitt iritziz (2002b:7). Debbie Budlender aditu handienetako bat da azterketa horietan, GIA ekimenen aholkulari gisa aritu baita 20 estatu baino gehiagotan.

nahikoa informazio hori edukitzea, funtsezkoa izan arren. Aurrekontuan normalean ageri ez diren datu batzuk ere behar dira, eta hori da aipatutako ekimenek duten bigarren erronka.

Emakumeek eta gizonak rol sozial desberdinak dauzkagu esleituta; horren eraginez, lana sexuaren arabera banatzen eta hierarkikoki antolatzen da. Normalean, hori kaltegarria izaten da emakumeentzat, esleitzen zaizkien zereginetako asko gutxietsi egiten baitira. Horregatik, genero ikuspegiko aurrekontuak aipatzen zaizkion lehenengo aldirian, jende asko –bai administrazio barruan eta bai handik kanpo– harritu egiten da, eta ez du ulertzen bi terminoen artean dagoen erlazioa. Gehienetan, izan ere, aurrekontua generoaren ikuspuntutik neutroa den tresnatzat hartzen da; finantza agregatuak jasotzen ditu, eta ez du emakumei edo gizoni buruzko berriazko aipamenik egiten.

Alabaina, ustezko neutraltasun hori ez da benetakoa. Egokiagoa izango litzateke aurrekontua “generoarekiko itsua” dela esatea. Hain zuzen ere, ez ditu kontuan hartzen gizarteak emakumei eta gizoni esleitzen dizkien rol, erantzukizun eta gaitasun desberdinak, eta ezta ere politikek talde horiengan dituzten ondorio desberdinak. Diskriminazioaren eta genero desberdintasunaren ondorioz, Elsoren iritziz (2002a:30), aurrekontu publikoek gutxietsi egin ohi dute emakumeek makroekonomiari egiten dioten ekarpena. Izan ere, ekonomia ez ordainduaz ahazten dira (emakumeak arduratzen dira zainketa gehienez, eta baita lanerako indarrari eusteaz ere). Gainera, aurrekontuek ez dute kontuan hartzen lana, baliabideak eta aktiboak genero harremanen arabera banatzeak guztizko ekoizpenean, aurrezki mailan, inbertsioetan, etab. duen eragina.

Generoarekiko itsutasun hori esparru kontzeptualetan antze-man daiteke, eta baita aurrekontu publikoak prestatzeko erabiltzen diren estatistika nahiz ikerketetan ere. Beraz, tresna honen bidez zera lortu nahi da: politika fiskalak kontuan har eta balora dezala zainketen ekonomiak edo ugalketa ekonomiak ekoizpen ekonomiko nazionalari egiten dion ekarpena⁶.

Hortaz, aurrekontu publikoak politika ekonomiko eta sozialeko tresna bihurtu eta aipatutako desberdintasunak ezabatzeko aktiboki lagun dezaten, emakumeen eta gizonen bizitza nahiz lan baldintzak ezagutu behar ditugu, eta baita partaide diren taldeenak ere. Horretarako, ezinbestekoa da emakumeek eta gizonak denborari ematen dioten erabilerari buruzko adierazle osagarri batzuk edukitzea (ekoizpen, ugalketa eta zainketa

jarduerak, baliabideen eta beste aktibo batzuen kontrola, etab.), aurrekontu neurriek beren bizi baldintzetan dituzten ondorioak modu integralean aztertzeko.

Erronka horrek, beraz, politika publikoek genero harremanetan duten eragina ikustea dakar; horrez gain, politika publikoak antolatzerakoan genero ikuspegia zenbateraino kontuan hartzen den ezagutzeko balio du. Orain arte, bi kontzeptuok ez dira esperientzia horiekin lotu. Etxeen barruan gertatzen diren dinamika eta prozesu ekonomikoak ez badira ongi ulertzen, horrek ezusteko ondorioak izan ditzake gobernuen eta enpresen politiketan. Beraz, prozesu horiek ezagutzea da lehenengo urratsa.

Orokorrean, azterketa horien bidez proposatzen diren aldaketen xedea hau da: beharrezkoak diren jarduerak emakumeek eta gizonak modu orekatuan egingo eta kontrolatuko dituzten gizarte bat lortzea, jarduera horien fruituak ere bidezko moduan banatuko dituen. Horretarako, besteak beste, genero demokrazia lehenetsun bihurtu behar da administrazio publikoen jardunean.

Bestalde, zera gogoratu behar da: azterketen aukera zabalak eta ekimenok abiarazi diren tokietako egoera sozial, ekonomiko eta politikoa anitzak direla eta, ekimeneen xedeak herrialde bakoitzaren ezaugarrien arabera finkatu dira, eta proiektu horietako partaide diren taldeen interesak kontuan izanik. Zenbait kasutan, emakumeekiko diskriminazioa ezabatzeaz gain, helburu orokorragoak finkatzen dira: gobernuak gardentasun handiagoaz jokatzeko, ustelkeria desagertzea eta gizarte zibilak partaidetza handiagoa izatea aurrekontuaren prestatetan eta erabaki hartzeetan.

Adibidez, Hegoafrikako esperientziak bertako emakumeen arazoetan jartzen du arretarik handiena; baina, horrez gain, emakume pobreen premia sozio-ekonomikoei lehenetsuna emango dioten ordezkari balio eta printzipio batzuk garatu nahi ditu. Gainera, ekimena aurrekontu prozesua demokratizatze-ko erabili nahi dute: gastu publikoa kontrolatzeko tresna kritiko gisa, herritarrek haren jarraipena egiteko aukera gehiago izan ditzaten; eta herritarrengan eragin zuzena duten eta 1994ko aldirietan politikora arte, eztabaidatzeko aukerarik izan ez duten gaiak jorratzeko (Budlender et al. 2002a: 87).

Ezin dugu ahaztu ekimenetako asko demokratizazioaren garaian abiarazi zirela. Horrek aukera gehiago sortu ditu

⁶ Waring, 1989; Cagatay, Elson eta Grown (ed.), 1995; Esim, 2000.

gubernua ekimen horietan inplikatzeko, eta zentzu zabalagotan, gobernu praktika gardenagoak bultzatzeko eta aurrekontuen prestaketan gizartearen partaidetza indartzeko (Budlender et al. 2002a: 89; Europako Batzordea 2003: 25).

Helburuak esperientzia batetik bestera aldatzen diren arren, GIAen xede nagusia honela laburbildu genezake: neurri fiskalek genero berdintasunean duten eragina zehaztea, eta aurrekontuak egungo desberdintasuna gutxitzen, handitzen edo bere horretan uzten duen aztertzea. Horretarako, galdera batzuei erantzun behar zaie. Lehen: nori egiten diote mesede aurrekontu gastuaren emaitzek? Eta bigarrena: nori ordaintzen ditu erabaki horiek dakartzaten kostuak?

3. Nazioarteko esperientziei buruzko azalpen laburra

Genero ikuspegiko Aurrekontuei buruzko lehen ekimena (orduan *Emakumeen Aurrekontuak* deitzen zitzairen) Australian sortu zen, 1980ko hamarkadaren lehen erdialdean, eta 1984tik aurrera gauzatu zen, gobernu laboristak hauteskundeak irabazi zituenean. Ekimen aitzindari hartan, Gobernu Federalak, berau osatzen zuten feministek bultzatuta, sail bakoitzeko aurrekontu proposamenak barrutik aztertzekeo prozesu bat jarri zuen abian. Sail bakoitzari gogoeta egiteko eskatu zitzaion, bere politikek kaltetutako edo lagundutako taldeen genero harremanetan izan zezaketen eraginari buruz. Helburua, beraz, azterketa hori gobernuko instantzia bakoitzak egin beharreko politika eta aurrekontu plangintzaren hasierako fasean sartzea zen. Esperientzia hori federazio mailan egin zen lehenik, eta, geroago, estatu federatu guztietan. Ekimen guztietatik luzeena izan da –hamarkada bat iraun zuen estatu guztietan– eta, gaur egun, genero berdintasunaren alde aurrekontu federaletan egindako ahaleginari buruzko agiri bat prestatzen da urtero⁷. Esperientziak oihartzun handia izan du nazioartean, eta geroagoko ekimen askok erreferentzia eta abiapuntutzat erabili dute.

Hala ere, estrategia hau gobernuen egituretatik kanpo garatu da batez ere. Horren adibide bat Erresuma Batua da. 1989an, *Women's Budget Group* delakoa sortu zen (Gobernuko talde independentea; izenak dioen bezala, emakumeen aurrekontuen alde lan egiten du). Erakundea indartzen joan da denborarekin, eta, 1997an Alderdi Laboristak boterea eskuratu zutenetik, eragin handiagoa du gobernuaren jardueretan. Aurretik,

aurrekontu proposamenari buruzko informazio zehatzik ez zeukanez, gobernuak zirriborroa jendaurrean aurkeztu ondoren, taldeak emakumeen egoerarentzat garrantzitsuentzat jotzen zituzten alderdiak aztertzen zituen, bereziki zergak (alderdi hori da Erresuma Batuan eztabaida gehien pizten duena); horrez gain, aurrekontuak baliabide gutxi dituzten emakumeengan zituen ondorioak ikertu zituzten. Hasieratik, *Women's Budget Group*eko kideak ugalketa eta zainketen ekonomiaren eta politika publikoen artean zegoen loturaz jabetu ziren. Beraz, politika horiek lanaren, denboraren, baliabideen eta aktiboen banaketa sexualean dituzten eraginak aztertzen saiatu dira, ekonomia feministak aldarrikatzen duen jarduerako ekonomikoaren pertzepzio integreletik abiatuz.

Kanadan ere, gizarte zibilak dinamizatu du ekimen hori. Kasu honetan, 90eko hamarkadan gobernu federalak ezarritako eredu neoliberalaren ordezkoko politika ekonomiko bat bultzatzen zuten erakundeak izan dira protagonistak⁸. Erakunde horiek gizartearen gehiengoari mesede egingo dion politika publiko bat defendatzen dute; biztanle ahulenei arreta berezia eskainiko diena, eta emakumeen bete gabeko premiei lehentasuna emango diena. Gobernuaren lehentasunekiko beste aukera batzuk daudela jakinarazteko, 1993. urteaz geroztik, ordezkoko aurrekontu proposamen bat egiten dute urtero. Horren helburua politika makroekonomiko onbideratu bat bultzatzea da, egungo politikak ez bezala, kostu sozialik ekarriko ez duena. Hasieran, genero ikuspegia ekimenaren lehentasunetako bat baino ez zen; azken urteotan, ordea, garrantzi handiagoa hartu du, eta Kanadako zenbait estatutan, genero ikuspegiko ordezkoko aurrekontuak egiten ari dira.

Gizartean duten eraginaren eta oihartzunaren aldetik garrantzitsuak diren ekimen aitzindari horien artean, Hegoafrikako esperientzia ere nabarmendu behar da. 1994an abiarazi zen, gizarte zibilaren eskutik, eta geroago gobernuak ere bultzatu zuen (Commonwealtheko Idazkaritzaren bultzadari esker). Kasu honetan, funtsezko elementuetako bat apartheidaren osteko aldaketa politikoa izan zen. Erregimen politiko berriarekin, hainbat ekimen abian jartzeko baldintza egokiak sortu ziren. Ekimen horren xedea bertako biztanleen, eta, bereziki, emakumeen bizi baldintzak hobetzea zen. Izan ere, aurreko gobernu arrazisten politika diskriminatzaileek talde horri egin zioten min gehien. Horretarako, parlamentari feministek eta genero gaietan ziharduten ikerketa erakundeek bat egin zuten lehenik, hobekuntza politiko horiek bultzatzeko asmoz.

⁷ [http://www.fafia-afai.org/files/australiabooklet\[1\].pdf](http://www.fafia-afai.org/files/australiabooklet[1].pdf)

⁸ Ordezko Politika eta Aukeren Aldeko Kanadako Zentroa (CCPA).

Geroago gobernu ere konprometitu zen, eta sail guztietako aurrekontu neurriak aztertu zituzten hiru urteko epean. Ezinbestekotzat hartu zen Hegoafrikako emakumeen bizi eta lan baldintzak hobeto ezagutzea, haien arteko desberdintasunak kontuan izanik hurrengo faktoreen arabera: arraza, bizilekua (hirietan edo nekazaritza eremuetan), hezkuntza maila eta baliabide ekonomikoak, besteak beste. Horrela, emakumeen eguneroko errealitatearen azterketari eman zitzaion lehentasuna, egin beharreko lehentasunezko hobekuntzen adierazle gisa. Izan ere, aurrekontuak muga handiak zituen eta aurrez konprometitutako aurrekontu kredituak zeuden.

Hegoafrikaren kasuan gertatu den bezala, administrazio publikoek bultzaturiko beste ekimen batzuetan Commonwealtheko⁹ Idazkaritzaren eginkizuna azpimarratu behar da. Australiako ekimen aitzindariaren arrakasta oinarritzat hartuz¹⁰, Idazkaritzak proiektu pilotu bat abiarazi zuen 1995ean, zenbait estatu kide barne hartzen zituena eta denborarekin zabaldu egin dena. Aipatutako erakundea estrategia honetan inplikatu izanaren arrazoia zera da: politika makroekonomikoa generoaz hornitzeko lanari ekiteko, toki pragmatikotzat jotzen du aurrekontua¹¹. Ekimen horiek, gainera, mekanismo gisa erabil daitezke eskura dauden baliabideekin hartutako konpromiso politikoak gauzatzeko. 1995etik 2002ra arte, esperientzia horiek egiten aritu ziren Estatu erdiak erakunde horretako kideak ziren¹². Hala ere, horietako asko esplorazio ekimenak izan dira; beraz, haien ondorio ekonomiko eta sozialak ebaluatzea oso zaila da gaur egun, denbora beharko baitute eraginkorrak direla eta gobernuen dinamika nahiz inertziak aldatzeko gai direla frogatzeko.

Nazioarteko beste zenbait erakunde, bereziki UNIFEM eta NBGP, eta baita garapenerako lankidetzako erakunde batzuk ere (CIDA, SIDA, GTZ eta Ford Fundazioa, besteak beste), horrelako esperientziak bultzatzen ari dira munduan zehar. Prestakuntza eta laguntza teknikoak ematen dute, batez ere. Adibidez, Txile, Mexiko, Peru, El Salvador eta Bolivian horre-

lako prozesuak abiarazi dira, eta emaitza batzuk eman dituzte dagoeneko. Aurrera jarraituz gero, emakumeek jasaten dituzten diskriminazioen zergatiak ezagutuko dira, eta diskriminazio horiek ezabatzeko eskura dauden baliabideak hobeto erabiliko dira. Afrikan ere, aipatutako erakundeek ahalegin handia egin dute. Gainera, bertako GKEak gai horretan adituak diren langileak trebatzen aritu dira, estatu mailan batez ere (Tanzania, Mozambique, Ruanda, Zambia eta Senegalen, besteak beste).

Mundu osoan gertatzen ari diren deszentralizazio administrazio boko prozesuen ondorioz ere, esperientzia horiek zabaltzen doaz. Mexikon, esaterako, FUNDAR eta Equidad de Género erakundeen ustez, deszentralizazio prozesuaren eraginez, lehenengo aldiz herrialdearen historian, polemika piztu duten tokiko aurrekontu erabakiak eztabaida politiko publikora pasa dira (Budlender et al. 2002a: 103), eta genero ikuspegia ere azaleratzen ari da. Gainera, Latinoamerikako esperientzia batzuek ikuspuntu esku-hartzaileagoa ari dira bultzatzen, bereziki toki mailan, eta Andeetako eskualdeak indarrak eta esperientziak koordinatu ditu sinergiak sortzeko eta bertara egokitutako formak aurkitzeko.

Europa ere, bere aldetik, hasi da generoarekiko sentikorrek diren aurrekontuak egiteko aukerak eta metodologiak aztertzen, beste kontinente batzuk baino beranduago bada ere. Pilatutako eskarmentuari dagokionez, Eskandinaviako herrialdeak nabarmendu behar dira. Izan ere, urte asko daramatzate emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko ekintza positiboko politikak bultzatzen, eta sinergiak sortu dituzte Eskandinaviako Kontseiluan koordinatutako lanaren bidez. Europako beste herrialde batzuetan ere (Alemania, Austria, Belgika, Espainia, Frantzia, Italia, Eskozia eta Suitzan), urratsak ematen hasi dira tresna hori martxan jartzeko, baina intentsitate eta lurralde maila desberdinetan¹³.

Administrazio publikoek bultzatutako esperientzien kasuan, gauza bat argi dago: politika publikoek emakumeen eta gizo-

⁹ Commonwealth erakundea estatu independenteen lankidetzak elkarrekin bat da. Bertan, 54 herrialdek (Erresuma Batuko kolonia ohiak) hartzen dute parte. 2002an 1.700 milioi pertsonako biztanleria osatzen zuten, hau da, munduko populazioaren heren bat. Esimen (2000: 20) iritziz, Sri Lanka, Hegoafrika eta Fiji izan ziren GIAk ezartzen lehenak, 1995etik aurrera. Geroago, 1998an, Barbadosen gauza bera egin zuen, prestakuntza tailerrak antolatuz eta jarraian azterketa sektorialak eginez.

¹⁰ Australiako gobernu federalak 12 urtez argitaratu zituen *Emakumeen Aurrekontuak* delakoetako adierazpenak (1984/85-1996/97). XXI. mendearen hasieran, Iparraldeko Lurraldeak eta Tasmaniako gauza bera egiten jarraitzen zuten (Sharp, 2000:48).

¹¹ Budlender, 2002 a:85.

¹² Haien artean, Australia, Barbados, Belize, Botswana, Kanada, Fiji uharteak, India, Kenya, Malawi, Malasia, Maurizio, Mozambique, Namibia, Hegoafrika, Sri Lanka, St Kitts eta Nevis, Tanzania, Uganda, Erresuma Batua, Zambia eta Zimbabwe daude. Ekimen batzuk Commonwealthekin koordinatu ditu. (Budlender et al., 2002 a; Hewitt eta Mukhopadhyay, 2002 a: 63).

¹³ Gaian sakondu nahi izanez gero, ikus Jubeto (2007): "Experiencias europeas en Presupuestos con Enfoque de Género: una revisión crítica", *Ekonomia Feministari buruzko II. Biltzarra*, Zaragoza.

nen bizi baldintzetan duten eragina ezagutzeko, administrazio maila guztien inplikazioa behar da; izan ere, beraien politikak osagarriak izaten dira sarritan. Beraz, ezinbestekoa iruditzen zaigu maila horiek kontuan hartzea, neurtu nahi den eragina benetan zein den ikusteko, eta, behar denean, neurri zuzentzaileak ezartzeko.

Aipatutako ekimenak abiarazi diren administrazio mailari dagokionez, esperientziok Estatueta aurrekontuetan jarri dute arreta lehenik, baina ez beti. Hego Amerikako zenbait herrialdek, adibidez, toki mailan hasi dituzte esperientziak; eta estatu federalen kasuan, Australia edo Tanzanian esaterako, azterketak estatu gobernuetan nahiz lurraldeetakoetan egin dira. Estatu unitarioetan, adibidez Hegoafrikan, Filipinetan eta Ugandan, nazio mailako eta toki mailako esperientziak jarri dira martxan. Ekimen horiei esker, aurrekontua herritarrengana hurbildu da, haren inguruko eztabaida publikoa areagotu da eta aurrekontuak egun nagusi diren genero harremanak aldatzeko eskaintzen dituen aukerak ikusi dira.

Normalean, toki maila biztanleengandik hurbilen dagoena dela pentsatu ohi da. Izan ere, hasiera batean, politika publikoen onuradunekin harreman zuzenagoa edukitzea ahalbidetzen du, haien premiak nahiz gogobetetze maila antzemateko. Bestela esanda: hurrengo atalean aipatuko ditugun tresnetako batzuek toki mailan ezartzeko errazagoak dirudite, eta gainerako administrazio mailen azterketekin osatu behar dira. Ildo horretatik, lehen aipatutako deszentralizazio administrazio boko prozesuek batez ere toki mailan bultzatu dute esperientzia hori. Latinoamerikako zenbait Estatuetan, adibidez, diktadurak amaitu eta demokraziaren aldeko urratsak eman zirenetik (toki batzuetan oso txikiak izan dira), deszentralizazio prozesu bat gertatzen ari da; eta, horren ondorioz, azterketak hasi dira egiten toki mailan, bai hiriburuetan eta bai gainerako hirietan.

Europari dagokionez, toki mailako esperientzia garrantzitsuenak ere Eskandinavian egin dira; hain zuzen ere, estatu unitarioak izan arren, oso deszentralizatuta daude, eta udalek eskumen asko dituzte. Aitzindariak izan dira tokiko esperientziak abiarazten, beraien terminologia eta metodologia erabili dituzten arren generoa politika publikoetan zeharka sartzeko. 1999.

urtetik, Toki Erakundeen Suediako Federazioak lanean dihardu genero ikuspegia tokiko politika publikoetan txertatzeko; gaur egun, Suediako probintzien erdiak baino gehiagok ikuspegi hori barneratuta dauka bere xede eta agiri politikoetan. Alabaina, esperientzia horiek badituzte muga batzuk. Izan ere, probintziek ez daukate sexuaren arabera bereizitako estatistika sakon eta eraginkorrik; eta ikuspegi hori aurrekontuen dinamikan zenbateraino txertatuta dagoen aztertuz gero, gabeziak daudela ondoriozta daiteke, Gotenburgeko esperientziak¹⁴ argi erakusten duenez. Gaur egun, agintari eskandinaviarrak baterako esperientzia bat garatzen ari dira Eskandinaviako Kontseiluan. Erakunde hori GIAekin loturiko ekimen pilotuak bultzatzen ari da, metodologiak eta ezagutzak trukatzeko asmoz, estatu mailan eta, neurri txikiagoan, toki mailan.

Europako gainerakoan, orokorrean, tokiko esperientziak duela gutxi jarri dira abian. Aurreratuen dauden eta metodo berri-zailenak erabiltzen dituzten artean, Italiako ekimenak aipatu behar ditugu. Genoako esperientziarekin batera, Modena eta Sienako probintziak osatzen dituzten zenbait udalerritan ere ekimenak daude abian. Modenaren kasuan, giza garapen iraunkorren ikuspegia jarraitu da (gaitasunetan jartzan du arreta)¹⁵, emakumeengan eta gizonengan eragin desberdina duten gastuak sailkatzeko eta aztertzeko. Ekimen berritzailea da, eta haren nondik norakoak metodologiari buruzko atalean azalduko ditugu.

Estatu germaniarretan ere, batez ere Alemanian, Austrian eta Suitzako zati batean, horrelako esperientziak egiten hasi dira, estatu nahiz toki mailan (Berlin, Kolonia, Munich, Viena, Basilea...). Esperientzia horiek emakume taldeek dinamizatu dituzte batez ere; presioa egiteaz gain, azterketa horietan laguntzea erabaki dute, genero zeharkakotasuna errealitate bihurtu eta genero demokrazia lortzeko moduko xedea izan dadin.

Estatu espainiarrean, GIAen ekimena Emakundek garatu zuen lehenik, Emakumearen Euskal Erakundeak. Eusko Jaurritzako sei sailetan esperientzia pilotu bana jarri zuen abian, administrazioa ikuspegi horren garrantziaz jabetzen has zedin. Ildo horretatik, barne prestakuntzari eman zitzaion lehentasu-

¹⁴ 2003an, Gotenburgon genero ikuspegia ongizatearen sektorearen udal aurrekontuetan txertatzeari buruzko ikerketa bat egin zen. Ongizatearen sektorea hurrengo aurrekontu kapituluetan dago banaturik: gizabanako eta familientzako zerbitzuak, errefuxiatuentzako zerbitzuak, elbarrituentzako zerbitzuak, adineko pertsonentzako zerbitzuak, udal osasun zerbitzuak eta gai estrategikoak. Ikerketak gabeziak antzeman zituen sexuaren arabera bereizitako estatistiken bilketan; horrez gain, genero ikuspegitik egindako gogoeten falta eta azterketen azalekotasuna utzi zituen agerian. Aurrekontuen agirietan jarraibide argiak sartzeko premia ere azpimarratu zen; izan ere, bestela, ikuspegi hori ahuldu edo desagertu egiten zen.

¹⁵ Amartya Sen eta Marta Nussbaumez giza garapenaren ikuspegiari buruzko beren lanetan adierazi dutenez.

na, eta interneten liburutegi digital bat jarri zen estrategia hori zabaltzeko asmoz (www.emakunde.es). Tamalez, proiektu pilotua amaitu ondoren, ekimena bertan behera gelditu zen. Izan ere, Ogasun Sailak eragozpen handiak jarri zituen ekimena zabaltzeko orduan (bera arduratu behar zen horretaz), eta Emakundek ezin izan du ezer egin sail horren laguntzarik gabe. Gaur egun, Emakundek euskal udalerrri batzuetako Berdintasuneko teknikariek dihardu lanean, emakumeentzat garrantzitsuak diren udal gastuak nabarmendu eta aztertzeko balioko duen eskuliburu bat prestatzeko. Xede horrekin, Australiako metodologia Euskadiko toki administrazioen gastu kategorietara egokitu du. Bestalde, 2005ean, genero ikuspegia Bilboko Udaleko aurrekontuetan sartzeko oinarriak finkatu ziren, eta prozesua oraindik garatzen ari da.

Andaluzian ere, aurrerapen batzuk egiten ari dira Autonomia Erkidego mailan. *Andaluziako Autonomia Erkidegoko Aurrekontuaren Genero Inpaktua Ebaluatzeko Txostenak* azpimarratu behar dira, 2006 eta 2007koak. Oso didaktikoak izateaz gain, kostu edo ahalegin handirik gabe ezar daitezke, eta hori oso ongi dator kio administrazio publikoari. Agiri horiek aurretik gogor lan egin dela islatzen dute, eta etorkizunean fruitu ugari ematea espero dugun prozesu bateko lehen urratsa dira. Hurrengo atalean prozesu horren gakoak azalduko ditugu.

Laburbilduz, munduan zehar ekimen horiek hartzen ari diren indarra ikusirik, tokian tokiko errealitateetara egokitzen ari direla esan dezakegu. Metodologiari dagokionez, teknikak ugaritzen ari dira, estrategia horren erabileretako batzuen izaera esperimental eta berritzailearen ondorioz.

4. Prozesu horietan erabilitako metodologia nagusiak

Aurrekontuak garrantzi handia du, beraz, politika publikoak islatzen dituelako. Tresna oso zabala eta konplexua da, gainera; benetako prozesu bat. Horregatik, genero ikuspegia aurrekontuan txertatzea zaila izaten da, batez ere hasieran. Hori dela eta, ekimenak abiarazteko hainbat metodo sortu dira.

Genero ikuspegia duen aurrekontu prozesu bat ezartzeko jarraibideak dagokion herrialdearen ezaugarrietara egokitu behar dira. Hala ere, kasu guztietan, printzipio orokorra orain arte bereizita egon diren bi ezagutza multzo bateratzean datza: genero desberdintasunen ezagutza eta finantza publikoen eza-

gutza. Beraz, sormen prozesua da, hainbat mailatan berrikuntzak egitea eskatzen duena. Egile batzuek prozesu horietan partaidetza sozialak duen garrantzia nabarmendu dute. Beraien ustez, gizarte zibila gobernuak baino hobeto dago prestatuta esperimentazio metodologikoa egiteko; izan ere, oraindik lan asko egin behar da genero diskriminazioa bere zentzu zabalean erreproduzitzen duten mekanismoak aurkitzeko (Budlender et al. 2002a: 112).

Azterketa horiek hainbat modutara egin daitezke, eta errealitate bakoitzera egokitu behar dira. Hala ere, orain arte gastuen inguruan egindako azterketetan, oinarriko hiru metodo erabili dira, eta horietatik abiatuz zenbait aldaketa egin dira. Hurrengo lerroetan zehar, gastu politikekin loturiko tresnetan jarriko dugu arreta; izan ere, aztertutako esperientzia gehienak tresna horietatik abiarazi dira. Nolanahi ere, diru sarreren arloan egiten ari diren ahaleginak ere oso garrantzitsuak dira (ikus Stovski, 1997; Villota, 2000, 2004, Pazos, 2004). Azterketa horiek funtsezkoak dira zeregin publikoak sexuaren arabera gizartean duen eragina ikusteko.

Lehenik eta behin, Australiako esperientzian erabilitako metodoa dago. Ronda Sharp ekonomialari eta feminista australiarak proposatu zuen, eta sail bakoitzeko gastua hiru kategoriatan banatzen du. Bigarrenik, Hegoafrikan erabilitako bost urratsen metodoa dago, Debbie Budlenderrek asmatua. Bi ikuspegiak esparru analitiko komun bat osa dezakete, bai egikaritutako aurrekontuak ebaluatzeko eta bai aurrekontuaren eraginari buruzko ex ante azterketak egiteko. Adibidez, Budlender eta Hewittek (2003) beren gida-eskuliburuan¹⁶ dioten bezala, gobernu batek sail edo ministerio jakin bat aukeratu eta bere programa eta azpiprogramak azter ditzake, Sharpen hiru kategoriak erabiliz; eta, gero, bakoitzari buruzko azterketak eta txostenak egin ditzake Hegoafrikako ereduaren bost urratsak jarraituz.

Ekimena gizarte zibiletik abiatzen bada, bereziki garrantzitsutzat hartzen den gai bat aukera daiteke, eta bost urratsen eske- ma jarraitu; ondoren, sailtako programa eta azpiprogramek gai horri nola heltzen dioten azter daiteke, Australiako metodologia erabiliz. Hirugarrenik, Diane Elsonen proposaturiko tresnak daude. Tresna horien zati batzuk antzekotasun asko dituzte aurreko bi ikuspegiekin; beraz, tresna horiek egiten dituzten ekarpen berriak azalduko ditugu soilik.

¹⁶ Atal honetako funtsezko erreferentzietako bat.

1. koadroa: GIAk aztertzeko erabilitako tresna nagusiak		
Australiako kasua (R. Sharp)	Hegoafrikako kasua (D. Budlender)	D. Elsonen azterketa mailak*
1. Emakumei berariaz zuzenduriko gastuak. 2. Sektore publikoan aukera berdintasuna bultzatzeko ekimenak. 3. Gastu publikoaren gainerakoa.	1. Emakume, gizon, neska eta mutilen egoeraren azterketa. 2. Politikek generoarekiko duten sentsibilitatea. 3. Gastu esleipenen azterketa. 4. Gastuaren bidez finantzaturako zerbitzu publikoen kontrola. 5. Emaizten ebaluazioa.	1. Estrategia makroekonomiko agregatua. 2. Gastu eta sarreraren osara. 3. Emandako zerbitzuen eraginkortasuna. * Zazpi tresnatan banaturik.

Iturria: geuk egina, aipatutako egileen proposamenak oinarritzat hartuz.

4.1. Australiako proposamena

Australian, gobernuko sail edo arlo bakoitzaren azterketatik abiatzea erabaki zen. Horretarako, sail bakoitzeko gastuak sailkatu egin ziren goian aipatutako hiru kategorien arabera:

- 1. Emakumeen premiak betetzera berariaz zuzenduriko gastuak:** besteak beste, emakume aborigenentzako osasun programak eta emakume gazteentzako hezkuntza, prestakuntza eta enplegu programak.

Gastuak honela aztertea proposatzen zen:

- Aztertu beharreko programa/proiektuaren xedea zehaztu, konpondu nahi zuen arazoa barne (errealitate sozialaren adierazleak).
 - Programa edo proiektua garatzeko aurreikusitako jarduerak zehaztu (generoarekiko erakusten duten sentsibilitatea baloratu).
 - Programa edo proiektu horretara zuzendutako baliabideak kuantifikatu.
 - Emaizta adierazleak zehaztu (adibidez, programaren onuradun diren emakume eta gizonen kopurua).
 - Neurrien eragin adierazleak zehaztu, emakume, gizon, neska eta mutilen egoeran gerta daitezkeen aldaketak neurtzeko.
 - Hurrengo ekitaldirako aurreikusitako aldaketak kontuan hartu, aurrekontua generoarekiko sentikorrago den ala ez ikusteko.
- 2. Sektore publikoan aukera berdintasuna bultzatzeko ekimenak:** emakumeentzako prestakuntza, amatasun eta aitatasun baimenak, lanpostuen deskribapenen aldaketak genero diskriminazioari aurre egiteko, etab.

Kasu honetan, urrats hauek jarrai daitezke azterketa egiteko:

- Sailean dauden lanpostu motak deskribatu.
 - Enplegu mailak (eskalak), enplegu motak (lanaldi osoa, partziala, aldi baterakoa), soldatak eta irabaziak sexuaren arabera bereizi. Beste alderdi batzuk ere azter daitezke; adibidez, elbarritasunen bat duten langileen kopurua.
 - Enplegu aukerak bultzatzeko abiarazitako edozein ekimen aipatu: gastaturako zenbatekoak eta lortutako kopuruak (adibidez, emakumeentzako prestakuntza edo genero berdintasunari buruzkoa).
 - Genero gaiekin lotutako edo horretan espezializatutako karguak dituzten emakume eta gizonen kopurua zehaztu. Adibidez, polizian, osasun zerbitzuan edo gizarte zerbitzuetan dihardutenak, familia barruko indarkeria edo bortxaketa kasuak tratatzen dituztenak, etab.
 - Sektore horretako (eta guztietako) administrazio Kontseilu edo Batzardeetan dauden pertsonak sexuaren arabera bereizi, kargu ordaindua dutenak (zenbatekoekin) eta ordainik jasotzen ez dutenak zehaztu.
 - Hurrengo ekitaldirako aurreikusitako aldaketak azaldu.
- Sail edo administrazioko **gainerako gastu publiko**a, generoaren ikuspuntutik duen eragina kontuan izanik. Aurreko bi ataletan sartzen ez diren hainbat ekimen hartzen ditu, aurrekontuaren guztizkoa osatzen dutenak. Azterketak aldatu egiten dira ekimenen edukiak duen garrantziaren arabera. Onuradunik egonez gero, mota guztietako programa eta laguntzak erabiltzen dituzten pertsonak sexuaren arabera bereizten dira.

Azterketaren oinarritzat sailkapen hori erabili den kasu guztietan, aurrekontuko zenbatekoen %95 baino gehiago hirugarren kategorian kokatzen da, eta, batzuetan, %99ra ere iristen da. Horregatik, oso garrantzitsua da gastu horien zeharkako azterketa egitea. Izan ere, alderdi hori kontuan hartzen ez bada, genero berdintasuna gastu publikoaren bidez bultzatzeko aukera handienetako bat galduko dugu (Budlender eta Hewitt, 2003). Alabaina, hau da arazo gehien sortzen dituen kategoria, sail bakoitzean dauden programen aniztasuna dela eta. Horregatik, aldezturik, azterketan sartuko diren programak aukeratu dira. Normalean irizpide hauek erabiltzen dira: programei zuzenduriko aurrekontuen bolumena, eta programa horietan jorraturiko gaiek generoaren aldetik duten garrantzia¹⁷.

4.2. Hegoafrikako bost urratsen proposamena

Hegoafrikan garatutako ekimena, **5 urratsena**, asko erabili da 1. eta 3. kategorietan, eta honetan datza:

1. Hasteko, **aurrekontua kokatzen den gizarteko emakume, gizon, neska eta mutilen egoera aztertzen da**. Azterketa sektoreka eginez gero, bakoitzaren egoera aztertzen da eremu horietan. Esperientzia gehienetan, hemen azaltzen da lehenengo arazoa, eta, gainera, azterketa prozesu osoan zehar errepikatuko da: ez dago sexuaren arabera bereizitako daturik. Bestalde, generoarekin loturiko desabantailaz gain, hurrengoak hartu behar dira kontuan: kokapen geografikoa (hiria/landa-eremua), klasea (pobrea/aberatsa), adina eta jatorri etnikoa, batez ere. Kasu bakoitzean, datu horiek gurutzatu egin behar dira; izan ere, azpitalde desberdinetako emakume eta nesken artean aldeak egongo dira, eta baita gizonen eta mutilen kasuan ere.
2. Aztertu beharreko **saileko politiken genero sentsibilitatea** baloratzen da. Gastuen zenbatekoak sakonki aztertu aurretik, zenbateko horiek administrazioen genero politikan kokatzea proposatzen da; beren planteamendu orokorrak, asmoak eta xedeak aztertuz, genero berdintasunari dagokionez, eta esaten dena nahiz ezkututzen dena kontuan izanik. Horrela, lehen balorazio bat egingo da, politika jakin batek desberdintasunak handitu, txikitu edo bere horretan utzi ditzakeen argitzen saiatzeko.
3. Aurrekontuetako **gastuen esleipenak baloratzen dira**. Urrats honetan, aztertu beharreko programaren zenba-

tekoak hartzen dira (programen arabeko sailkapena egokia da azterketa mota honentzat), programaren memoriarekin eta egon daitezkeen adierazleekin batera, lehen hurbilketa bat egiteko. Hemen arazoak sortu ohi dira, aurrekontuetako zenbatekoak aurkezten diren moduagatik; eta, baita ere, administrazioak informazio argia eta zehatza eman behar duelako, jarduera bakoitzera zuzendutako baliabideak aztertu ahal izateko (horrek, gainera, prozesuaren gardentasunari laguntzen dio eta partaidetza errazten du).

4. **Eskaintako baliabideen eta zerbitzuen erabilera aztertzen eta ebaluatzen da**. Urrats honetan aurrera egiteko, ezinbestekoa da datu hauek edukitzea:

- programari esleitutako baliabide edota langile kopuruari buruzko datuak,
 - programaren zuzeneko emaitzak, bere onuradunak diren pertsonen dagokionez,
 - emaitza horien eraginak. Adibidez, osasun arreta handitzen bada, horrek osasunean eta denboraren erabileran duen eragina. Beraz, batzuetan beharrezkoa da programa desberdinetako emaitzak elkarrekin gurutzatzea.
 - Atal honetan adierazle gurutzatuak behar ditugu, aurrekontuen genero sentsibilitateari buruzko informazioa emango digutenak jarduera esparru desberdinetan; eta hori lortzea zaila izan daiteke.
5. Azkenik, **lortutako emaitzak baloratzen dira beren eraginaren arabera**: neurriek emakumeen eta gizonen abiapuntuko egoeran duten eragina ebaluatzeko orduan, bi arazo sortzen dira: batetik, egoera baten aldaketa ezin zaio programa jakin bati bakarrik egotzi, aztertutakoa baino askoz faktore gehiagorekin dagoelako lotuta; eta, bestetik, neurriek eragina izateko, denbora bat pasa behar da (epe ertainera). Nolanahi ere, ahaleginak egiten ari dira eraginen bilakaera neurtzeko, jarduketa eremu guztietarako adierazleak sortuz.

4.3. D. Elsonen proposatutako hiru mailak

D. Elsonen hiru maila proposatzen ditu genero ikuspegiko aurrekontuen ekimenak aztertzeko¹⁸. Izan ere, bere ustez,

¹⁷ Latinoamerikaren kasuan, 1. eta 2. kategoriak elkartu egin dira, bakar bat osatuz. Ondorioz, azterketa bi gastu kategoriatik abiatu da, eta horrek lana erraztu du (Andia eta Beltran, 2003).

¹⁸ Budlenderrek bildu eta laburtu ditu, 2002 a: 13.

aurrekontu publiko bat prestatzeko orduan, erabakiak hiru mailatan hartzen dira:

- 1. maila. Estrategia makroekonomiko agregatua: defizit publikoaren eta politika ekonomikoko esparruaren epe ertainerako azterketa hartzen du barne, horien etorkizunaz eta iraunkortasunaz gain.
- 2. maila. Gastu eta sarreraren osaera.
- 3. maila. Emandako zerbitzuen eraginkortasuna.

Elsonek generoa hiru maila horietan txertatzen laguntzen duten hainbat tresna proposatzen ditu. Tresnok zazpi kategoria zabaletan daude banaturik (batzuetan, sei izaten dira). Esperientzia praktikoetan gehien aztertzen diren atalak bigarren eta hirugarren mailekin daude erlazionatuta; hau da, gastuaren osaerarekin eta emandako zerbitzuen eraginkortasunarekin. Gainera, gastuen osaeraren azterketarako lehen aipaturako metodologiak erabiltzen dira; beraz, azterketa hori ez dugu deskribatuko. Lehen maila oso esperientzia gutxitan aztertu da; horien artean kanadarra nabarmendu behar da, justizia sozialaren aldeko erakundeek burutua. Hala ere, maila horrek garrantzi handia du. Izan ere, aurrekontua epe ertain eta luzerako aukera makroekonomikoak islatzen dituen epe laburrerako ariketa bat da.

LEHEN MAILA: Generoa epe ertainerako politika ekonomikoaren esparruan eta estrategia makroekonomiko orokorrean txertatzea. Lehenik eta behin, defizit publikoaren maila aztertzen da, eta defizit hori epe ertainera iraunkorra den ere bai. Epe ertaineko aurrekontu esparruetan erabilitako ereduak ez dituzte kontuan hartzen, besteak beste, neurri horiek familia unitateen lan kargan eta komunitateetan izan ditzaketen ondorio kaltegarriak; eta ezta ere egungo genero desberdintasunetan eragin ditzaketen aldaketak. Aitzitik, arau eta balioen esparru soziala konstantetzat hartu ohi da. Esparru horrek, ordea, zuzeneko eragina du politika makroekonomikoan; izan ere, ordaindutako eta ordaindu gabeko lanaren eremuak elkarri hertsiki loturik daude, eta bateri egindako presioek besteari zuzenean eragiten diote.

Maila honetan erabiltzen diren tresna nagusiak hauek dira:

A. Aurrekontuak denboraren erabileran duen eraginaren azterketa, sexuaren arabera bereizita. Azterketa hau egiteko, familia inkestak erabili behar dira (normalean Estatistika Institutuek prestatzen dituzte); horrelako inkes-

tarik ez badago, denbora erabiltzeko moduak sexua eta adinaren arabera bereizten dituzten galdesortak prestatu beharko dira. Datu horiei esker, lan eskakizunen aurrean emakumeek duten denbora defizita neurtu ahal izango dugu, batez ere ordaindu gabeko lanari dagokionez. Izan ere, lan hori ordaindutakoa baino askoz ikusezinagoa da, ohiko ekonomiaren multzo estatistiko gehienetan ez delako azaltzen. Bi datu horien baturak komunitate bateko emakumeek eta gizonek egindako guztizko lana erakusten digu; eta munduko gobernu gehienak defizit publikoan egiten ari diren murrizketek haien bizitzan duen eragina aztertze-ko balio du. Horretarako, murrizketek ukitzen dituzten eremuak ezagutu behar dira. Adibidez, defizit publikoaren murrizketak komunitateari eskaintzen zaizkion zerbitzu publikoak gutxitzea baldin badakar, horrek zera esan nahi du: emakumeek lanaldi ordaindu gabeetan denbora gehiago ematearen truke lortu dela murrizketa hori, zerbitzu publikoen gabeziak bete behar dituztelako.

Jarduera ekonomikoaren bi eremuen arteko lotura (lan ordaindu eta ordaindu gabekoaren artekoa) ez da kontuan hartzen. Horren ondorioz, ordea, aurrekontuaren epe luzerako iraunkortasuna itxurazkoa izan daiteke, egungo giza baliabideak eta baliabide sozialak agortuko baititu. Beraz, azterketa integral hau egiterakoan, hurrengo ondorioa atera ohi da: kaltegarria dela eremu horietan gastu publiko murriztea, esparru sozialari kalte egiten diolako, eta kome-nigarriagoa izango litzatekeela defizita murrizteko beste modu batzuk bilatzea; adibidez, politika fiskala aldatzea, baliabide ekonomiko gehien dituzten talde sozialek zerga gehiago ordain ditzaten. Laburbilduz, aurrekontua eta bere iraunkortasuna aztertzeko orduan, ez litzateke abiatu beharko esparru sozialaren ustezko izaera konstantetik¹⁹.

B. Genero kontzientzia duten epe ertainerako politika ekonomikoko esparruak. Erabilitako ereduetan, kome-nigarria izango litzateke emakumeek eta gizonek aurreztearekiko duten portaera desberdinari buruzko datuak sartzea; edota emakumeen esku dauden jabetza eskubideen gorakadak produktibitatean izan dezakeen eragina aztertzea. Funtssezko gaiak dira, ikerketa empiriko gehiago eskatzen dituztenak. Era berean, aurrekontua kokatzen den orientazio instituzionalak edo sistema sozialak genero berdintasunarekiko islatzen duen sentzibilitate maila azter daiteke. Esate baterako, emakumeak gizonak baino prestuago egon daitezke soldaten igoera mugatuaren truke gastu publiko soziala mantentzera.

¹⁹ Elson, 2002a: 39, 45.

Errealitate hori hobeto ezagutzeko, moduren bat asmatu beharko litzateke emakumeek beren lehentasunei buruz dituzten iritziak biltzeko. Horrez gain, lagungarria izan daiteke emakumeek ordezkariak zabala lortzea erabaki politikoak hartzen diren eremuetan (botere betearazlean, legegintzakoan eta funtzionariotzan), eta baita presio politikoa egiten duten taldeetan ere, esaterako mugimendu feministetan eta auzo elkarteetan. Eraitza hainbat aurrekontu egoera desberdin izan litezke, baliabideek generoaren arabera duten banaketaren eta emakumeen jabeakuntza mailaren arabera (Budlender et al. 2002a: 121).

BIGARREN MAILA: Lehen azaldu dugunez, gastuen eta sarreraren osakerari buruzkoa da. Gastuei dagokienez, proposatutako tresnak Sharp eta Budlenderrek deskribatzen dituzten oso antzekoak dira. Beraz, ez ditugu hemen errepikatuko.

HIRUGARREN MAILA: Emandako zerbitzuen eraginkortasuna aztertzen du. Eraginkortasun maila aztertzeko, zerbitzuen kostuaren eta lortutako emaitzen arteko erlazioa hartzen da kontuan. Generoaren ikuspegitik, galdera hauek egin behar dira: Emaitzak norentzat? Kostuak norentzat? Emaitzak bat al datoz emakumeen eta gizonen premiekin? Bi taldeen gogobetetasun maila berdina al da zerbitzu horiekiko? Espero diren emaitzen artean, genero desberdintasuna murriztea al dago? Galdera horiei erantzuteko, zenbait teknika erabil daitezke:

- 3.1. **Premien ebaluazioa.** Zerbitzu bakoitza nork behar duen zehazten saiatzen da. Normalean, ebaluazio horiek egiteko, ezaugarri demografikoei, sarrera mailai eta herrialdeko udalerrietan dauden zerbitzuei buruzko datu kuantitatiboak biltzen dira, eta hainbat motatako pobrezia adierazleekin konbinatzen dira²⁰.
- 3.2. **Zerbitzuaren kalitate adierazle azterketa.** Azterketa hauek egiteko, adierazle kuantitatibo batzuk erabiltzen dira (eskoletako matrikulazio tasak, ospitaletako oheen okupazio tasak, ur, saneamendu edo elektrizitate hornidura daukaten etxeen kopurua...). Azterketak egiterakoan, ordea, arazoak sortzen dira. Izan ere, errazagoa da inputak neurtzea outputak baino, eta, batzuetan, kalitatea ez da neurtzen, lortutako informazioa partziala delako.
- 3.3. **Onuradunen ebaluazioa.** Aurreko atalean antzemandako gabeziak nolabait konpontzeko, azterketa honen bidez gungo onuradunen eta onuradun izan daitezkeen per-

sonen iritziak jasotzen dira. Horri esker, emandako zerbitzuek onuradunen premiak zenbateraino betetzen dituzten jakin daiteke. Kasu honetan, teknika kualitatiboak erabiltzen dira: elkarrizketak, galdesortak edo talde lana. Oso garrantzitsua da emakumeak animatzea, beren iritziak eman ditzaten; ondoren, zerbitzuaren eraginkortasuna handituko omen duten neurriak alderatu behar dira erabiltzaileek neurri horiei buruz duten pertzepzioarekin. Hau da: galderak egiterakoan, gastu publikoari dagokionez emakumeek dituzten lehentasunetan jarri behar da arreta, edota zerbitzu publikoen funtzionamendurekin loturiko alderdietan (Elson, 2002a: 32, 44).

- 3.4. **Kostu "ikusezinen" ebaluazioa.** Atal honetan kostu monetarioak eta denboraren erabilerekin loturikoak aztertzen dira. Sarritan, zerbitzuetan aldaketak egiten direnean horien eraginkortasuna handitzeko asmoz, benetan egiten dena zera da: kostu horiek sektore publikoko aurrekontuetatik atera (kuantifikatu egin daitezke, eta, beraz, ikusgaiak dira) eta emakumeen denbora aurrekontuetan sartu, alegia, familia eta komunitateetan. Ondorioz, kostuak ikusezin bihurtzen dira. Beraz, garrantzitsua da kostuak murriztea helburu duten neurrien benetako irismena azterzea, beren tamaina eta gizartearen, eta, bereziki, emakumeen, guztizko lan kargan dituen ondorioak ezagutzeko (adibidez, osasun zerbitzu publikoen murrizketak).
- 3.5. **Aukera berdintasunak zerbitzuak ematerakoan dakartzan onuren ebaluazioa.** Sektore publikoko enplegu politikek genero harremanak aldatzen lagun dezakete, aukera berdintasuna bultzatzen badute eta kontratatutako pertsonen premiekin bat baldin badatoz. Neurri horiek jardunbide egokiagoak susta ditzakete, lan merkatuetako sexuagatiko diskriminazioa murriztuz, eta emakumeei aukera gehiago emanez beraien nahiz seme-alaben hezkuntza hobetzeko.
- 3.6. **Sektore publikoko azpikontratazio politikaren azterketa.** Neurri honek diskriminazioari aurre egiten lagun gaitzake, administrazio izapideak sinplifikatzen baditu, informazioarako sarbidea errazten badu eta enpresei kontratu txikiagoak eskaintzen bazaizkie (enpresak emakumeenak ere badira).
- 3.7. **Genero kontzientziako aurrekontuaren egoerari buruzko Txostena/Agiria.** Adierazpen hau aurrekontuko gas-

²⁰ Arazoa sexuaren arabera bereizitako daturik ez dagoelako sortzen da, eta, baita ere, premiak ez daudelako zehaztuta zerbitzuen erabiltzaileen ikuspuntutik. Gainera, denborarekin loturiko premiak ez dira kontuan hartzen.

tuak emakumeengan duen eraginaren arabera aztertzen duen gobernuaren txosten batean dago jasota, eta ez du emakumeentzat aurrekontu bereizi bat egiterik esan nahi. Txostena hainbat modutara aurkez daiteke (eranskin gisa, txosten bereizi gisa, aurrekontuko atal baten modura...). Australian, adibidez, gobernuko sailei zera eskatu zitzaizkien: beraiek proposaturiko gastuek emakumeengan nolako eragina izango zuten azter zezatela; hau da, genero inpaktuari buruzko *ex ante* ikerketa bat egin zezatela. Jarraian, sail guztietako txostenekin baterako adierazpen bat egin zen. Ekimen honek elkarlan handia eskatzen du; horrez gain, gobernuko saila ekimenarekiko eta berekin dakartzan ondorioekiko konprometitu behar da. Baldintza egokiak sortzeko, seguruenik, laguntza asko eta antolamendu egokia lortu behar da, gobernuaren barruan zein gobernutik kanpo (Elson, 2002a: 37, 46).

Laburbilduz, horiek dira GIAetan erabiltzen diren oinarriko tresnak. Argi dago oso aberatsak eta konplexuak direla. Kasu bakoitzerako tresna egokienak aukeratu ondoren, aldatu nahi den errealitateara egokitu behar dira. Seguruenik, horren ondorioz, etorkizunean tresna gehiago sortuko dira. Budlenderren ustez (2002a:108), Elsonen tresna zerrenda asko aipatzen den arren, praktikan ez da batere erraza metodologia horren urratsak ematea; hortaz, tresna berriak behar dira. Budlender eta Sharpek diotenez, tresnak ez dira mekanikoki erabili behar. Beraien iritziz, gobernuen politiketan generoa txertatzeko tresnarik garrantzitsuena, beharbada, genero harremanak aztertze-ko prozesua bera da. Hala ere, administrazioek metodo estandarizatuak eskatu ohi dituzte, beraien ohiko jardueretan erraz sartzeko modukoak; eta hori zaila da, diskriminazioek iazera estrukturala dutelako eta zenbait eremutan ez direlako argi antzematen. Horretarako, emakumeen eta gizonen portaeren motibazioak, eremu soziala eta politika publikoen suposizioak aztertu behar dira; eta hori egiteko, adierazle kuantitatiboak erabiltzeaz gain, azterketa kualitatiboak egin behar dira.

Alabaina, lehen esan bezala, azterketak egiteko, datu estatistikoak behar dira lehenik; horren premia gai honekin loturiko txosten eta agiri guztietan azpimarratzen da. Budlenderrek ere gauza bera nabarmentzen du; hark dioenez, gertakariak eta datuak ezagutzeko gero, generoaren defendatzaileek konfiantza handiagoa izango dute beren argudioak defendatzeko orduan.

Horrez gain, garrantzitsua da informazioa “ezer jakin nahi ez duten” pertsonen aurrean jartzea²¹.

Datuak eta adierazleak ematearen xedea funtzionarioak beren erantzukizunaz ohartaraztea da, baina hori ez da beti erantzukizuntzat hartzen herritarren edota parlamentuen aurrean. Ondorioz, adierazleak interpretatzeko erabiltzen diren hiru estandarrekin batera (hiru “E”ak: Efizientzia, Ekonomia eta Efikazia), zenbait tokitan laugarren E bat sartu dute, Ekitatearena²². Aurrerapauso handia izan daiteke benetan gauzatzen bada.

Esperientzia horietan txertatutako genero adierazle gehienak Administrazioak eskaintzen dituen zerbitzuen erabiltzaileak sexuaren arabera bereiziz abiatzen dira. Horrez gain, oinarriko galdera batzuk egiten dira, aztertu beharreko programa bakoitzari buruzkoak. Galdera horiek errealitate bakoitzera egokitu behar dira, eta gai honetan adituak diren pertsonen prestatu dituzte. Hona hemen galdera garrantzitsuenak²³:

- Zeintzuk dira programaren helburu politikoak?
- Programak genero berdintasunerako helburu zehatzak hartzen al ditu barne?
- Nolako baliabideak onetsi dira programa abiarazi aurretik?
- Nolako baliabideak erabili dira programa abiarazi ondoren?
- Posible al da baliabide horiek erabili dituzten gizon eta emakumeen kopurua ematea?
- Posible al da gizonei eta emakumeei esleitutako fondoak bereiztea?
- Politikaren emaitza garrantzitsua al da emakumeentzat eta gizonentzat?
- Programak bete al ditu finkatutako helburu politiko orokorrak?
- Programak bete al ditu genero berdintasunerako helburu zehatzak?
- Gizonengan eta emakumeengan ondorio negatiboak izan dituen eragozpenik antzeman al da?
- Sailak uste al du politikan aldaketak egin daitezkeela, emaitza horiek kontuan izanik?

²¹ Budlender, 2002 a: 106.

²² Esate baterako, Tasmaniaren kasua (Budlender, 2002a: 123).

²³ Galdera horietako asko lan honetan aipatzen diren nazioarteko emakume adituek proposatu dituzte. Zerrenda hau, zehazki, M. Jose Martínez Herrero Saileko lankidearekin prestatu dut, aipatutako zerrendak erabiliz.

5. Beste metodo interesgarri batzuk

Nazioartean gehien erabiltzen diren hiru metodoak azalduta, jarraian Suedian sortutako bi metodo aztertuko ditugu, 3R eta JämKAS Bas direlakoak. Izan ere, metodo horiek Europako hainbat esperientziaren inspirazio iturria izan dira, eta baita zenbaiten oinarria ere. Ondoren, gaitasunei buruzko ikuspegi zabalago batean oinarrituz, Emilia-Romagnan jarraitutako metodologia berritzailea aztertuko dugu. Eta amaitzeko, Bilbon eta Andaluzian egun abian dauden esperientziak laburki azalduko ditugu; bien artean zenbait antzekotasun daude.

5.1. Suediako 3R metodoa: Ordezkaritza, Baliabideak, Realia

Metodo honi 3R deitzen zaio; suedieraz, Ordezkaritza, Baliabideak eta Realia hitzen inzialak dira. Udal politikako arlo eta sektore zehatzak genero berdintasunaren ikuspegitik aztertu eta berrikusteko garatu zen²⁴. Esparru analitiko orokor bat da, genero ikuspegia duten politika publikoko ikerketetan egin beharreko lana zehaztu eta sistematizatu nahi duena. Egoera jakin baten aurrean hartu beharreko jarrera eta politiken oinarrian dauden generoaren araberrako arau zein balioak azaleratzen ditu.

Metodo hau ere zenbait galderatan dago oinarriturik; zer nork jasotzen duen eta zein baldintzatan jasotzen duen ezagutzea da galderen xedea. Horrela, emakumeen eta gizonen egoerei buruzko informazioa sistematikoki biltzen laguntzen du, lehenago deskribatu ditugun gainerako tresnek bezala. Azterketa hori egin aurretik, ezinbestekoa da berdintasuna lortzeko borondatea egotea; hau da, desberdintasun egoera gainditzearen aldeko apustua egitea.

3R metodoak hiru zati ditu, “R” bakoitza azterketaren fase bat delarik. Lehenengo biek oinarri estatistikoa osatzen dute, geroago, aztertu beharreko errealitatea ikertu ahal izateko. Fase bakoitzeko funtsezko elementuak laburki azalduko ditugu:

Lehenengo Ra: Ordezkaritza

Azterketaren fase honetan, gizonen eta emakumeek udalerrian duten ordezkaritzari buruzko mapa kuantitatiboa egiten da. Horretarako, erakundeko maila eta sail guztiak generoaren ikuspegitik aztertzen dira. Maila eta kategoria profesional bakoitzean zenbat emakume eta zenbat gizon dauden ezagutzea da xedea, lanpostuen ezaugarriekin batera. Laburbilduz, aztertu beharreko sail edo sektorearen antolamenduzko egitu-

raren osaera sexuaren arabera bereiztean datza.

Zati honetan, Udala aztertuz gero, gizonen eta emakumeek organo erabakitzzailean betetzen dituzten karguak deskribatu behar dira. Esate baterako, udalerriko antolamenduzko egituretan (zinegotzigoak, gobernu batzordea, batzorde sektorialak, barrutiko batzordeak, udal sailak, udal enpresak...), udal ordezkaritza duten alderdi politikoetan, auzo elkarteetan, edota udaleko batzar irekietan.

Udal zerbitzuen erabiltzaileak ere azter daitezke, Udalaren zerbitzuak zenbat emakumek eta zenbat gizonen jaso edo erabiltzen dituzten jakiteko, eta baliabide horiek eremuren batean modu desberdinean banatzen diren ikusteko.

Beraz, estatistikak eta galdesortak fase honetako funtsezko zatiak dira. Era berean, oso garrantzitsua da erabakiak hartzen dituzten pertsonen, neurrien arduradunak diren funtzionarioen eta erabiltzaileen parte hartzea. Izan ere, horrela, emaitzek desberdintasunak erakutsiz gero, denak motibatua sentituko dira aldaketaren alde.

Bigarren Ra: Baliabideak

Azterketaren bigarren fase honetan, udalerriko baliabide nagusiak gizonen eta emakumeen artean nola banatzen diren ikertzen da. Kontuan hartu behar da baliabideak ez direla dirua soilik; denbora, espazioa eta informazioa ere hartzen dute barne. Emakumeen eta gizonen premiei begira, egungo esku-hartzeak eta lehentasunak nola kokatzen eta egokitzen diren ere aztertzen da.

Hasiera batean, fase honek alderdi asko hartzen ditu barne. Adibidez, ordezkaritza politikokoekin beren eztabaidatan ematen duten denbora, sexuaren arabera bereizita; edota gizonen eta emakumeek aurrekontu publikoekin loturiko erabakietan duten partaidetza, edo udal langileen soldatak.

Herritarrei dagokienez, udal zerbitzuen erabiltzaile diren alde-
tik, emakumeek eta gizonen toki administrazioaren ardurapean dauden neurrien bidez jasotzen dituzten baliabideen azterketa ere egiten da. Horrez gain, gizonen eta emakumeek espazioa nola erabiltzen duten aztertzen da. Adibidez, neskek eta mutilek haurtzaindegietan edo eskoletako patioetan hartzen duten tokia, edota emakumeek eta gizonen beren jarduerak burutzeko erabiltzen dituzten baliabide ekonomikoak eta espazio fisikoa.

²⁴ Getrud Aströmek diseinatu zuen, Toki Agintaritzen Suediako Elkartearekin lankidetzan.

Hirugarren Ra: Realia/Kultura/Erakundeak

Azterketaren hirugarren eta azken fase hau kualitatiboagoa da. Bertan, aurreko ataletan jasotako datuak aztertzen dira, kulturarekin loturiko alderdietan arreta jarritz. Helburua zera da: arau eta balio kulturek emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunari eusten zenbateraino laguntzen duten ikustea, eta abiapuntuko egoera hori aldatzeko ezarri behar diren neurriak zehaztea. Azterketaren lehen zatian sor daitezkeen arazoak azaldu nahi dira, botere egituretan eta erabaki hartzeetan emakumeek eta gizonen duten ordezkaritza desberdinari begira, eta baita partaidetzazko foro sozialeri dagokien ere; foro horietan ere, desorekak egon daitezke emakumeen eta gizonen partaidetzaren artean. Hortaz, emakumeen eta gizonen eguneroko errealitatean azterketa baliabideen eta, bereziki, denboraren erabilera desberdinarekin loturik dago.

Metodoak desberdintasuneko egoera bat agerian utzi ondoren, erabakiak hartzen dituzten pertsonen dagokie genero berdintasuna bultzatzeko behar diren neurriak ezartzea. Beraz, metodo honek egoera jakinak deskribatu eta ebaluatzeko balio du gehienbat, ez genero zeharkakotasuneko prozesuak abiarazteko. Gainera, metodoa ezarri den kasuetan ere, normalean ez da ebaluaziorik egiten²⁵ generoak toki mailan zeharka izandako ezarpen mailari buruz.

Horregatik, ezinbestekoa da gehiago aurreratzea eta azterketaren emaitzak genero berdintasunaren aldeko helburuekin alderatzea. Azken horiek oso orokorrak badira, erreferente zehatz eta neurgarri bihurtu beharko dira. Beste gauza batzuen artean, programak antolatze eta kudeatzeko modua aldatzea proposatu ohi da, beren helburuak bete ahal izateko. Toki Agintaritzaren Suediako Elkartearen (ASAL) iritziz, aldaketa proposamenak ekintza plan batean sartu beharko lirateke. Plan horrek ohitura berriak, estatistika berriak eta konparazio zerrenda berriak hartu behar ditu barne, jarraitzeko errazak diren gidien modura jokatzeko dutenak (ASAL, 2002; Eskandinaviako Kontseilua, 2005:47-48).

Gainera, duela gutxi beste R bat sartu dute, Murrizketarena. Horrek zera esan nahi du: erakundeek ez baldin badute gene-

ro zeharkakotasuna ezartzen, zigortuak izango direla. Izan ere, 3Ren ezarpen maila asko aldatzen da generoarekin loturiko gaien arduradun batetik bestera. Beraz, diskrezio maila altu hori gainditu egin beharko litzateke oro har.

Metodo horri esker, estereotipoak eta iritzi okerrak agerian geratu dira (politikak generoarekiko neutralak direlako ideia), ohiturak praktika diskriminatzaileetan oinarrituta zeudela erakutsiz. Prozesu horrek, gainera, estatistika eta azterketa berriak egiteko premia azaleratu du; hori ezinbestekoa da genero harremanetan dauden arazoei modu egokiagoan heltzeko. Bestalde, metodoak lan prozedura eta ohiturei buruzko eztabaidak piztu ditu. Prozedura horiek generoarekiko uste bezain neutralak ez direla erakutsi du; bestalde, hain “natural” eta ohikotzat jotzen zirenez, ikusezinak ziren gaien buruzko ikuspegi zabalagoak azaleratu ditu. Horrela, helburuak finkatzen, neurtzen eta ebaluatzen hasi dira, administrazio publikoek ezarritako neurriak berdintasuna lortzeko bidean egin dituzten aurrerapenak ikusteko.

Metodo honek antzekotasun asko ditu genero ikuspegiko aurrekontuen azterketekin. Izan ere, GIAek zerbitzu publiko-eta baliabideen antolamendu eta hornikuntzaren, lanaren banaketa sexualaren eta botere egituren azpian dauden balioak aztertu behar dituzte.

5.2. JämKAS Bas edo Genero Berdintasunaren Azterketa

3R metodoarekin batera, Suedian JämKAS Bas izeneko metodoa erabiltzen da, edo Genero Berdintasunaren Azterketa²⁶. Tresna hau Suediako Gobernuak lan praktikoa batean onarritzen da, eta gobernuak zerbait agentzian probatu dute. Bere xedea zera da: laguntza ematea arlo jakin bateko genero berdintasun mailaren azterketa sistematikoan, eta azterketa hori sakondu ahal izateko eremu estrategiko bat aukeratzeko orduan. Xede horretarako, aztertu beharreko arloaren inbentario sistematikoa egiten da, hiru fasetan banatua: informazioa biltzea eta aukeratzeko, informazioa ikertzea eta aztertzea, eta xedea eta adierazleak finkatzea. Fase bakoitza zerbait urratsez osaturik dago; urratsak hauek izango lirateke, laburbilduta (Eskandinaviako Kontseilua, 2005: 48-50):

²⁵ Toki Agintaritzaren Suediako Elkartek ebaluaziorik egiten ez duen arren, toki mailan genero zeharkakotasuna ezarri eta ebaluatzeko baldintzen zerrenda prestatu du. Baldintzak hauek dira: Babes politikoa Udal Batzordeen erabaki eta ebazpen egokien bidez; Giza baliabideen eskuragarritasuna; Genero problematikaren ezagutza; Erantzukizunen identifikazioa; Metodo egokien erabilera eta metodo berrien garapena; Jarraipena eta kontrola; Sustapena eta motibazioa (Wenner et al. 2004:30).

²⁶ JämKAS Bas akronimo bat da; Berdintasuna (Jämställdhet), Ikerketa edo Inkesta (Kartläggning), Azterketa (Analys) eta Ondorioa (Slutsats) hitzez dago osaturik.

1. Informazioa biltzea eta aukeratzea:

- 1.1. Aztertu beharreko arloaren barruan eta haren arlo operatiboetan finkaturiko xedeen inbentarioa egin.
- 1.2. Genero berdintasuneko xedek arloak burutzen dituen jarduerentzat duten garrantzia aztertu. Xede horiek garrantzitsuak ez direla ondorioztatzen bada, ebaluazioa egingo da.
- 1.3. Genero berdintasunaren ikuspegitik, funtsezkoa edo estrategikoki garrantzitsua den arlo operatibo bat edo gehiago aukeratu.

2. Ikerketa eta azterketa. Aukeratutako arlo operatiboaren xede taldea deskribatzean datza:

- 2.1. Arlo operatiboaren azterketarako garrantzitsuak diren genero ereduak deskribatu, eta horien adierazpenak deskribatu, esate baterako, estatistikoki.
- 2.2. Genero eredu garrantzitsuak deskribatuta, aztertu arlo bereko emakumeek eta gizonen eskubide, aukera eta betebeharrak berberak dituzten. Berdintasunik ez badago, azaldu nolako desberdintasun mota dagoen, eta bere ondorioak zeintzuk diren.
- 2.3. Aztertutako arlo horretan berdintasuna handitu lezaketan ekintzak deskribatu.

3. Helburuak finkatzea:

- 3.1. Hasieran finkatutako helburuak aztertu, aurreko pausuetan lortutako datuak erabiliz. Finkatutako helburuek arlo operatiboan dagoen genero ikuspegia zenbateraino islatzen duten azaldu, eta helbururen bat falta den esan.
- 3.2. Arlo operatibo horretako helbururen bat hobetu edo beste bat finkatu.
- 3.3. Arlo operatiboko helburuarentzat egokiak diren adierazle batzuk identifikatu.

Ikus dezakegunez, orain arte azaldutako metodoek corpus metodologiko komun bat partekatzen dute: alde batetik, errealitatea hobeto ezagutu nahi dute, alegia, gure portaera, jarraia eta politiken atzean dauden balioak; eta, bestetik, balio horiek gainditzeko helburuak finkatu nahi dituzte, edo, behintzat, berdintasuna lortzeko errealitatea aldatzen lagun dezaketanak.

5.3. Gaitasunetan oinarritutako Italiako metodologia

Aurrekontuei eta genero auditoriei buruzko ekimen hau Emilia Romagna izeneko eskualdean garatu da eta gaitasunetan dago oinarrituta. Ekimen honetan, administrazio publikoko programak komunitateko emakume eta gizonen bizi kalitatea osatzen duten alderdiekiko dituzten loturen arabera sailkatu dira. Emakume eta gizonen bizi kalitatean eta garapen aukeretan eragin handia duten faktore batzuekin loturiko programak hartu dira erreferentziatzat: besteak beste, osasunaren eta gorputzaren osotasunarekin, lurralde mugikortasunarekin eta denboraren erabilerekin loturikoak.

Ikuspegi honek bizi kalitatearen arabera ebaluatzen du pertsonen ongizatea; hau da, pertsona batek, bere bizitzak berak desiratzen duen balioa edukitzeko garrantzitsutzat jotzen duen hori izateko eta egiteko dituen aukeren arabera. Baliabide ekonomiko eta finantzarioez gain, horrek beste hainbat alderdi hartzen ditu barne: askatasun politikoen babesa, partaidetza sozial eta kulturala, arau sozialak, tradizioak eta ohiturak. Gaitasunen ikuspegiak gizakien ongizatearen dimentsio guztiak hartzen ditu. Arreta berezia eskaintzen die ongizate material, mental eta sozialaren arteko loturei, eta baita bizitza ekonomiko, sozial, politiko eta kulturalaren dimentsioei ere.

Aurrekontu publikoen auditoria esperientzia hauetan, ongizateari buruzko ikuspegia bizitza estandarren ideiatik haratago doa, giza garapena barne hartuz; era berean, iraunkortasunaren kontzeptua berrikusten du ikuspegi feminista batetik. Honek, gaitasunen ikuspegia zabaldu egiten du, gizabanakoaren gaitasunen ugalketa sozialaren prozesua barne hartzeko; horrez gain, pertsonen zainketarako gaitasuna hartzen du kontuan. Zabalte horrek iraunkortasun sozialaren definizio berri bat dakar; definizio horrek gorputzen, emozioen eta harreman sozialen ugalketa hartzen du barne, eta, orokorrean, dimentsio materialak, sinbolikoak, egiturazkoak eta etikoak prozesu ekonomikoaren irudian bertan atxikitzea eskatzen du, bai maila makroekonomikoan eta bai mikroekonomikoan. Kasu honetan, gorputzen eta emozioen hauskortasunari (gizon helduena barne) aurre egiten dieten emakumeen eguneroko esperientzia, bizi kalitatearekiko azken erantzukizun historikoa den aldetik, ugalketa ongizatezko ikuspegi batean sartzen da. Ikuspegi horrek zenbait ambiguitasun uzten ditu agerian giza garapenaren ikuskerari dagokionez, aukera berdintasunaren ikuspegiak normalean antzematen ez dituenak.

Bi ikuspegiak, genero aurrekontuenak eta gaitasunenak, giza aniztasunarekiko kezka bera erakusten dute errealitatea azterterakoan; ordaindu gabeko ekonomiari garrantzia ematen

diote bizi kalitatea ulertzeko orduan, eta politikak zehatz-mehatz aztertu behar direla argudiatzen dute, desberdintasunak (emakumeen eta gizonen artekoak, edo beste talde batzuen artekoak) iraunarazten edo ezabatzen dituzten egiazta-zeko (Addabbo et al. 2004).

Gaitasunen ikuspegia jarraituz gero, auditoria-metodologia multidimentsional bat eduki behar da, politika publikoek emakumeen ongizatean duten eragina ebaluatu ahal izateko. Ikuspegia hiru administrazio mailatan erabili da: Emilia Romagna eskualdean, Modenako probintzia barrutian eta Modenako udalerrian.

Italiako administrazio maila bakoitzak dituen eginkizunetatik abiatuz, "ugalketa ongizatearen ikuspegi zabaldua" ezarri dute. Ikuspegi horrek, izan ere, ez du bere arreta emakumeek bizi duten desberdintasunean bakarrik jartzen; iraunkortasun sozialaren kontzeptua ere sartzen du. Emakumeek beren familiarako kideen urrakortasunari (gizon helduena barne) buruz duten esperientziak sistema ekonomikoaren ezaugarri orokorretako batzuk azaleratzen laguntzen du.

Bestalde, kontzeptuak lurraldeetako errealitateetara egokitu dituzte. Adibidez, eskualde mailan, gizabanakoaren ongizatea gaitasunen multzoa zabaltzarekin erlazionatu dute. Era berean, desberdintasunak honela definitu dituzte: baliabideetarako, hezkuntzarako eta osasunerako sarbideari eta norbere gor-

putzaren kontrolari dagokionez, emakumeek desabantailak dituzten espazio sozial bateko disfuntzioak. Emakumeen jabe-kuntzako zenbait dimentsio eta politika publikoko zenbait eremu identifikatetik abiatuz, Genero Auditoriako (GA) matrize bat sortu dute, adierazle soilen multzo batekin batera.

Udalerri mailan, ongizatea definitzeko, bere izaera multidimentsionala azpimarratzen duen gaitasun zerrenda erabili dute. Zerrenda hori hertsiki lotuta dago udal eskumenekin, eta administrazio egituran txertaturiko gaitasun inplizitu batzuetan oinarritzen da. Gaitasun horiek zuzeneko eragina dute herritarren ongizatean, eta tokiko gobernuaren erantzukizun politikotzat jotzen dira (Addabbo et al. 2004: 2). Jabekuntzaren dimentsioen eta udal eginkizunen arteko loturaren adibide bat beheko 2. koadroan ikus dezakegu.

Azterketa hauetan, tokiko ongizatea bermatzeko lankidetzan diharduten erakundeen sarean jarri da arreta, eta, batez ere, zainketen gaitasunean. Gaitasunen ikuspegiak erakusten duenez, alde batetik, bitartekoak edo inputak daude, eta, bestetik, bizi kalitatearen xede edo helburuak. Adibidez, diru sarrerak baliabide garrantzitsua izan daitezke ongizatearen zenbait alderdi lortzeko (hezkuntza, osasuna...), baina ez gaitasun guztientzat (epe luzerako langabeziak autoestimazioan eragiten dituen ondorio kaltegarriak eta depresioak ezin dira gutxieneko diru sarrera batzuekin bakarrik gainditu).

2. koadroa. Jabekuntzaren dimentsioak eta Italiako udalen eginkizunak

Jabekuntzaren dimentsioak	Udal eginkizunak
Baliabide publiko eta pribatueterako sarbidea eta kontrola.	Sektore soziala eta ongizatekoa.
Norberaren gorputzaren eta nortasunaren gaineko kontrola.	Sektore soziala eta ongizatekoa (prebentzio eta errehabilitazio zerbitzuak).
Norberaren lanaren eta beste proiektu batzuen gaineko kontrola.	Garapen Ekonomikoaren sektorea. Kultura eta artea.
Espazio politikorako eta gobernanzarako sarbidea.	Aukera berdintasunerako gastuak.
Norberaren mugikortasunaren eta segurtasunaren gaineko kontrola.	Mugikortasun eta garraiorako udal zerbitzuak.
Norberaren denboraren eta aisiaren gaineko kontrola.	Sektore sozialak eta ongizatekoak (haurrei, adineko pertsoneri, etab. zuzenduriko zerbitzuak). Kultura eta artea. Kirola.
Baliabide ukiezineterako sarbidea eta haien gaineko kontrola.	Hezkuntza publikoa, kultura eta adierazpen artistikoa.

Iturria: Addabbo, Lanzi eta Picchio, 2004. Nire itzulpena.

Ildo beretik jarraituz, eta probintzia barruti mailan, 2003an, aditu hauek (Tindara Addabbok eta Antonella Picchiok²⁷) hiru multzo handitan banatu zituzten gastuak. Lehenik, berariaz emakumeei zuzenduriko programa edo proiektuetarako gastuak (aurrekontuaren %0,80). Bigarrenik, administrazio aparatua eraginkortasunera zuzenduriko programa edo proiektuetarako gastuak (aurrekontuaren %33,1). Eta hirugarrenik, aurrekontuaren zatirik handiena, %66,1, genero inpaktua duten proiektu eta programetarako gastuak. Atal honetan, proiektuak hurrengo kategoriatan banatu dituzte:

- Gorputzaren eta osasunaren osotasuna.
- Lurralde mugikortasuna.
- Denboraren erabilerearen gaineko kontrola.
- Ezagutza eta kulturarako sarbidea.
- Baliabide pribatuetarako sarbidea (enplegua eta negozioak).
- Baliabide publikoetarako sarbidea (enplegua, transferentziak eta zerbitzuak).
- Partaidetza soziala eta ordezkartza politikoa.

Eskualde mailan, emakumeen jabeakuntzaren dimentsioen artetik, politikoki onartuta dauden eta toki mailan espezifikoki diren horiek aukeratu dituzte. Horretarako, hiru eremu nagusi bereizten dituzte:

- A1. Baliabide publiko eta pribatuetarako sarbidea eta horien gaineko kontrola.
- A2. Baliabide ez material eta kognitiboetarako sarbidea eta horien gaineko kontrola (ezagutza, hezkuntza, zerbitzuak, etab.).
- A3. Herritar aktiboak eta parte-hartzaileak.

Jarduketa eremuak aukeratu, jarduketa publikoko sektore nagusiekin gurutzatu dituzte, eta plangintza politikoa publikoko taxonomia intuitibo bati jarraituz, hurrengo matrizea sortu dute. Matrizeak Genero Auditoria (GA) bat egiteko behar diren oinarriko adierazleak jasotzen ditu (3. koadroa). Adierazle horiek bat datoz Europar Batasunak gizarte bazterketa neurtzeko erabiltzen duen ikuspegiarekin. Laburbilduz, adierazle soil eta praktikoko batzuk biltzen saiatu dira, ulertzeko eta aztertzeko errazak direnak.

3. koadroa. Genero Auditoriaren Matrizea			
	P1 Politika instituzionalak	P2 Politika makroekonomikoak	P3 Politika meso eta mikroekonomikoak
A1 Baliabide materialen gaineko kontrola	<ul style="list-style-type: none"> • Legeak eta bestelako xedapenak • Ordaindu gabeko ugalketa jardueren aitorpen soziala 	<ul style="list-style-type: none"> • Ondasun eta zerbitzu publikoak ematea • Baliabideekin loturiko laguntzak-Zerga araubideak 	<ul style="list-style-type: none"> • Helburu zehatzak eta bideratuak
A2 Baliabide ez materialen gaineko kontrola	<ul style="list-style-type: none"> • Legeak eta bestelako xedapenak • Lana eta biziak uztartzeko neurriak 	<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza zerbitzuak 	<ul style="list-style-type: none"> • Helburu zehatzak eta bideratuak
A3 Partaidetza eta herritar aktiboak	<ul style="list-style-type: none"> • Legeak eta bestelako xedapenak • Gobernantza eta partaidetza politikoa 	<ul style="list-style-type: none"> • Aukera berdintasuna bultzatzeko gastuak 	<ul style="list-style-type: none"> • Helburu zehatzak eta bideratuak

Iturria: Addabbo, Lanzi eta Picchio, 2004. Nire itzulpena.

Genero auditorian erabiltzen diren adierazleak hiru mailatan sailkatu dituzte. Lehenengo mailan, bizi baldintzekin loturiko adierazleak daude; bigarrenean, genero berdintasunaren adie-

razle sintetikoak (egileek horretarako datu gehiago behar direla azaldu dute), eta, hirugarrenean, politika publikoen adierazleetan jasotako genero berdintasuneko indizeak (4. koadroa).

²⁷ 2005ean, Antonella Picchiok *Ekonomia Feministari buruzko Biltzarrean* aurkeztutako ahozko komunikaziotik ateratako informazioa. Euskal Herriko Unibertsitatea. Apirilak 14-15. Bilbo.

4. koadroa. Genero Auditoriarako adierazle eta indize batzuk				
1. Maila – Bizi baldintzen adierazleak				
Ongizate ekonomikoa	<ol style="list-style-type: none"> 1. Per capita errenta PPA. 2. Pobrezia erlatibo eta absolutuaren arteko arrailaren ratioak 3. Sarrera Desberdintasuna (Giniren indizea) 4. Epe labur eta luzerako langabezia tasa 5. Sektore Informaleko enplegua guztizko enpleguaren ehuneko gisa 			
Ezagutza eta hezkuntzarako sarbidea	<ol style="list-style-type: none"> 1. Matrikulazio tasa Lehen eta Bigarren Hezkuntzan 2. Matrikulazio tasa Goi Mailako Ikasketetan 3. Matrikulazio tasak publikoki finantzaturako Prestakuntzako eta bestelako Ikastaroetan 4. Eskola absentismoaren tasak 5. Gai teknikoetan prestakuntza jasotzen duten emakumeen eta gizonen ehunekoak 			
Partaidetza	<ol style="list-style-type: none"> 1. Lan ordainduaren ehunekoak nekazaritzakoak ez diren jardueretan 2. Emakume eta gizon parlamentariaren ehunekoak 3. Emakumeek eta gizonen erakunde publikoetan betetzen dituzten zuzendaritza karguen eta kargu profesionalen ehunekoak 4. Partaidetza ehuneko ofiziala GKEetan, elkarteetan, etab. 			
2. Maila - Genero indize sintetikoak		<ol style="list-style-type: none"> 1. Generoko Garapen Indizea (Bizitza-Luzerari buruzko informazio gehiago behar da) 2. Generoko Jabekuntzarako Neurria 		
3. Maila – Genero berdintasuna politika publikoetako adierazleetan		P1 Politika instituzionalak	P2 Politika makroekonomikoak	P3 Politika meso eta mikroekonomikoak
A1 Baliabide publiko eta pribatuarentako sarbidea eta horien gaineko kontrola	<ul style="list-style-type: none"> • Ekoizpen/ugalketa jarduerak orekatzea zuzenduriko esku-hartzeak, Generoan Kontzentratuak (GK) • Gizonak/emakumeak buru diren enpresekin egindako kontratu publikoaren ehunekoak 	<ul style="list-style-type: none"> • GK Gastuen ratioa • Irabazien ratioa GK sarreraren arabera • Zerbitzu Publikoaren ratioa generoaren arabera • Zuzeneko/zeharkako zergen ratioa 	<ul style="list-style-type: none"> • GK sarreraren transferentzia ratioa • Enpresei laguntzeko gastuen ratioa 	
A2 Baliabide ez material eta kognitiboarentako sarbidea eta horien gaineko kontrola	<ul style="list-style-type: none"> • GK bateratze politikak 	<ul style="list-style-type: none"> • Goi Mailako Ikasketetarako gastuen ratioa GK 	<ul style="list-style-type: none"> • Bizitza osoan zeharreko ikasketzaren ratioak GK 	
A3 Herritar aktiboak eta parte-hartzaileak	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen eta gizonen ehunekoak duela gutxi kontratatutako pertsonen artean (zuzendaritza karguetan eta bestelakoetan) • Erakunde publikoetan dituzten karguen ehunekoak 	<ul style="list-style-type: none"> • Genero desberdintasuna murrizteko gastuak 	<ul style="list-style-type: none"> • Partaidetza sozial eta politikorako gastuak GK 	

Iturria: Addabbo, Lanzi eta Picchio, 2004. Nire itzulpena. GK= generoan kontzentratua.

Oinarrizko indizeak finkatuta, erabakigarria da genero berdintasunari buruzko adierazleen xede balioak zehaztea. Gaitasunen ikuspegiarekin bat etorriz, funtsezkoa da hurrengo egitea: baliabide publikoen aldaketa sozialerako prozesu bat giza garapenaren ikuspuntutik nola eta noiz burutzen den toki mailan aztertzea. Horrela, hurrengo alderdiak aztertu eta ebaluatu daitezke: taldeen portaera, arau sozial eta kulturalak, emakumeen eskubideak, denboraren erabilera eta eredu kulturalak nahiz nortasun sozialak.

Lehenengo bi mailetan giza garapenerako xede batzuk identifikatu ondoren, politika publikoen generoarekiko ebaluazioa egingo da. Ebaluazioak honetan datza:

1. Lortu beharreko xede balioen eta egungoen artean dagoen aldea zehaztea.
2. Politika publikoetako genero berdintasunaren adierazleak kalkulatzeko.
3. Esku-hartze politikoaren ondorioa zehaztea, adierazleek denboran zehar izan duten bilakaera neurtuz.
4. Azkenik, garapen xedeak berriro aztertuko dira, prozesua berrelikatzeko.

5.4. Euskadiko eta Andaluziako esperientziak

Espainiako Gobernuak 2005. urtetik dihardu politika publikoak genero ikuspegitik aztertzen, Osasun Sailaren genero inpaktuaren bidez (gaur egun prestaketa fasean dago). Hala ere, Estatu mailan gehien aipatzen den ekimena Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) Emakunde, Emakumearen Euskal Erakundeak, abiarazitakoa da. Ekimena 1999tik 2002ra arte gauzatu zen eta www.emakunde.es helbidean haren nondik norakoak azaltzen dira.

Toki mailan, Bilboko Udaleko Emakume eta Garapenerako Lankidetzako Sailak trebakuntza ikastaro bat antolatu zuen 2005eko maiatzean, aurrekontuaz arduratzen ziren arloetako teknikari guztiei zuzendua. Gaur egun, Udala ekimen pilotu bat bultzatzen ari da genero adierazleak udal sailerako aurrekontuen memorietan sartzeko asmoz. Ekimen horrek sektore mailan aurrekontuen ardura duten langileak prestatzeko eta sensibilizatzeko balio izan du. Aipatutako sailak beren borondatez ari dira ekimenean parte hartzen, eta Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU/UPV) ikertzaile talde batek esperientziaren aholkulari tekniko gisa dihardu.

2002tik aurrera, Espainiako beste kasu aipagarrienetako bat Andaluziako Autonomia Erkidegoa (AAE) garatzen ari den

esperientzia da, Emakumearen Andaluziako Institutuaren bidez. Autonomia Erkidego hau Estatuko bigarren handiena da hedaturari dagokionez, eta garrantzitsuen biztanleei dagokienez (7,4 milioi pertsona 2002an). Lehenik, Hitzaldi bat antolatu zen jendeari GIAk egiteko premia azaltzeko.

Jarraian, zenbait mekanismo abiarazi ziren prozesua instituzionalizatzeko asmoz. 2003. urtetik, Andaluziako Gobernu Kontseiluak onesten dituen lege proiektu eta araudi guztiek genero berdintasuna eta hurrengo eskubideak modu eraginkorrean izan behar dituzte kontuan. Ondorioz, proiektu eta araudi horien edukiaren genero inpaktuaren ebaluazio txostena egin behar da; txosten hori AAEaren Aurrekontuan egon behar da sartuta (Andaluziako Junta, 2005: 13-15).

2004an Genero Inpaktuaren Ebaluazio Txostena aratu zen gobernuak onesten dituen lege proiektu eta araudientzat. Agiri bakoitzak, gutxienez, dagokion jarduketa eremuan emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunak azaldu behar ditu, sexuaren arabera bereizitako estatistikak erabiliz; horrez gain, proiektu edo araudiak zuzendurik dagoen emakume eta gizonengan izan dezakeen eragina aztertu behar du.

2005ean, 2006rako aurrekontu autonomikoa egiteko arauak ematen dituen aginduan, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzera zuzendutako programei lehentasuna emango zitzaieela adierazi zen. Gaur egun, beraz, badirudi Administrazio Autonomikoak konpromiso sendoa duela genero berdintasunarekiko.

Ildo horretatik, Andaluziako Juntak "Andaluziako Autonomia Erkidegoko Aurrekontuko Genero Inpaktua Ebaluatzeko Txostena" prestatu du 2006 eta 2007rako. Agiria Andaluziako gobernuaren konpromiso politikoaren emaitza da, genero berdintasunaren alde aktiboki diharduelako. Txostenak hurrengo alderdiak jasotzen ditu, besteak beste:

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko garrantzitsutzat eta oso garrantzitsutzat jotzen diren aurrekontu programak.
- Programa horiekin zuzenean loturiko planak eta ekintza ildoak.
- Azterketarako erabilitako estatistika ofizialak, edo, horrelakorik ez badago, ezagutza handitzeko proposamenak.
- Ikerketa estatistikorako proposamenak, aztertutako gastu programei dagokien eremuan.
- Aurrerapenen jarraipena egiteko adierazleak.

Azaldutugun metodologiek erakusten dutenez, “bidea ibiliz egiten da”. Horregatik, ezarri beharreko metodologiaren garapena koordinatzeko, haiei buruzko ezagutzak indartzeko, metodologiaren indarguneak eta ahulguneak ezagutzeko eta talde sinergiak sortzeko, gero eta garrantzitsuagoa da nazioarteko lankidetzak. Europa mailan, adibidez, gizarte zibila aurrerapenak egiten ari da eremu horretan, hainbat ekimenen bidez. Horien artean nabarmenena *European Gender Budgeting Network* delako sarea da; 2006an sortu zen, genero aurrekontuetan interesatutako pertsona batzuen eskutik. Bere xedeak haiek dira: esperientziak partekatzea, proiektu berriak bultzatzea eta administrazio publikoei presioa egitea, epe ertain eta luzera eta sistematikoki, gaiari merezi duen arreta eskaini diezaioten, eta estrategia hori sendotzeko behar diren tresnak abiarazteko baliabideak zein langileak jar ditzaten. 2006an sortutako sare europar hau bere jarduerak zabaltzen ari da gaur egun, eta dinamika horien bultzatzaile bihurtu nahi du.

6. GIA ekimenetako partaideak

“Any budget is intrinsically political. The budget determines from whom the state gets resources, and to whom and what it allocates them. Each decision is a political one, as is the decision on the overall size of the budget”²⁸

Debbie Budlender *Second Women's budget* (1997)

Borondate politikoa eta zeregin publikoaren gardentasuna sarritan aipatzen dira beharrezko baldintza gisa, baita ezinbesteko baldintza gisa ere, GIAen azterketa proiektuek iraun ahal izateko, bai administrazio barruan eta bai kanpoan. Batez ere bigarren kasuan, gizarte zibila zuzenean inplikatzeko denean finantza publikoen kontrolean, eta proposamenen nahiz politika publikoen balorazioen bidez zeregin publikoari lagundu nahi dionean, funtsezkoa da administrazioak gizarte horrekiko erakusten duen jarrera.

20 estatu baino gehiagotako esperientziak aztertu ondoren, Debbie Budlender adituak zera dio: generoarekiko sentikorren diren aurrekontuen prestaketan eragin nabarmena izan dezaketen agente guztiek hartu beharko lukete parte ekimen horietan. Alegia: aurrekontuaren arduradunak diren ministerio, sail

edo arloetako buruek, berdintasun politikekin zerikusia dutenek, abokatuek, gizarte zibileko taldeek (adibidez, mugimendu feministak), GKEek, akademikoek, ikerketa erakundeek, estrategikoki kokaturiko pertsonak eta publiko orokorrak²⁹. Horrek genero azterketa politika fiskalean eta aurrekontuen zikloan sartzeko eskakizuna indartuko luke. Prozesu horretan, aukera berdintasuna berariaz bultzatzeaz arduratzen den ministerio edo erakundeak funtsezko eginkizuna du dinamizatzaile eta kontzientziatzaile gisa.

Orain arteko esperientzietan, hurrengo erakundeek egindako lana azpimarratu behar da:

- Zenbait kasutan, **Gobernua** izan da azterketen xedea, eta batez ere Ogasun Ministerioa (aurrekontuaren bulegoa, zehazki). Horretarako, generoarekin loturiko gaiez arduratzen den ministerioaren inplikazio zuzena behar da, Ogasun Ministerioari laguntzeko (bien arteko harremanak ez dira beti errazak eta horizontalak izan). Era berean, aztertutako arlo sektorialeaz arduratzen diren ministerioek egiteko garrantzitsua bete behar dute. Izan ere, estatu gehienek ikuspegi sektoriala erabili dute beren azterketetan (osasuna, hezkuntza, nekazaritza...), aurrekontuan islatzen den ohiko administrazio antolamenduari jarraituz. Ministerio sektorial batetik bestera desberdintasunak daude aurrekontuarekiko erantzukizunari dagokionez; beraz, kasu bakoitzean, administrazio egiturako zereginen barne banaketa eta erabaki ahalmena eza-gutu beharko da.
- GIAekin loturiko ekimen askok, beren estrategien artean, jendea sentsibilizatu eta trebatzea jasotzen dute, batez ere **Emakume Parlamentariak**; eta, horrez gain, materialak prestatzea emakume horiek treba daitezten, aurrekontuak eztabaida ditzaten eta estrategia parteka dezaten. Herrialde askotan, ordea, aurrekontua Parlamentura iristen denerako, erabaki gehienak hartuta daude, eta erakunde horrek oso gutxi egin dezake aurrekontuko partidak aldatzeko. Batzuetan, ez dago boteririk gastu eta sarreraren gutzitako kopuruak handitu edo murrizteko. Alabaina, beste kasu batzuetan, Parlamentua (batez ere, emakume parlamentari talde txiki bat) agente dinamizatzaile eta bultzatzaile garrantzitsua izan da³⁰.

²⁸ “Edozein aurrekontu, berez, izaera politikoa dauka. Aurrekontuak zehazten du Estatuak norengandik hartzen dituen baliabideak, nori zuzentzen dizkion eta zertarako erabiliko dituen. Erabaki bakoitza politikoa da, eta baita aurrekontuaren gutzitako taminari buruzko erabakia ere”. Debbie Budlender. *Emakumeen Bigarren Aurrekontua* (1997).

²⁹ Budlender et al., 2002 a: 11-17; Elson, 2002 a: 42.

³⁰ Adibidez, Hegoafrikan eta Ugandan.

- **Gizarte Zibilari** dagokionez, sarritan Australiako ekimena aipatzen da gizarte zibila kontuan hartzen ez duen proiektu baten ahuleziak azpimarratzeko. Izan ere, ekimen hori gobernuko egituretako emakumeek zuzendu zuten (*femokrata* deiturikoe). Beste kasu batzuetan, talde sozialek egindako ekimenek gobernuen asmoen abiada handitzen lagundu dute (Hegoafrika, Uganda, Tanzania, Erresuma Batua). Horrelako ekimene, antza denez, hobeto funtzionatzen dute gobernuaren eta azterketa egiten diharduten gizarte zibileko taldeen artean adostasun handia dagoenean.
- Gizarte zibilaz hitz egiten denean, hau da, ingelesez **GKE** deitzen diren talde aktiboenez, praktikan emakume taldeez ari gara (Tanzania, Uganda, Filipinak); eta, baita ere, ikerketa edo prestakuntzarako laguntza ematen duten akademiko taldeez (Erresuma Batua, Hegoafrika, Mexiko). Nolanahi ere, GKEena kontzeptu zabala da; beren osiera egitura sozial bakoitzaren menpe dago, eta, normalean, askotariko erakundeak hartzen ditu barne³¹. Horrek prozesua aberasten du, gainera. Gizarte egoera ahuleko biztanleen inplikazioari dagokionez, zailtasun asko antzematen dira; hala ere, ahaleginen bat egin da, adibidez Hegoafrikan.
- Ekimen batzuetan, **akademikoak** izan dira esperientzien bultzatzaile nagusiak (Bangladesh eta Italia), eta GKEak ere, batzuetan, horien ikerketetan oinarritu dira. Budlenderren iritzi, arriskutsua izan daiteke ikertzaileen lanarekiko menpetasun handiegia edukitzea. Izan ere, ikertzaileen interesak ez dira zertan bat etorri politikek ukitutako pertsonen interesekin.
- Bestalde, **pertsona oso erreferentziales** proiektuen bila-kerarako duten garrantzia ere agerian geratu da zenbait tokitan, esaterako Hegoafrika eta Mozambiken. Kasu honetan, arrisku nagusia ekimena pertsona horien menpe egotea da. Pertsona horiek desagertzen badira, proiektuaren etorkizuna kolokan jar daiteke. Hemen, bestalde, gizonak horrelako ekimenean izan behar duten partaidetzari buruzko eztabaida sortzen da. Prestakuntza eta sentsibilizazio lanean zenbateraino eman behar zaie lehentasuna? Izan ere, aurrekontuei buruzko erabaki asko gizonak hartzen dituzte (Budlender, 2002 a: 102).

Agente bakoitzaren inplikazio, protagonismo eta partaidetza maila kontuan izanik, gaur egunera arte burututako ekimenak hiru multzo handitan banatu dira:

- **Gobernu ekimenak:** Australiako, adibidez. Gobernuak, bere ministerioek eta erakundeek funtsezko eginkizuna bete dute ekimena ezarri den administrazio maila guztietan.
- **GKEen ekimenak:** administrazio egituretatik kanpo bultzatu dira. Horrelako ekimene zera izaten da: politikak gehiago demokratizatzea eta ezarri beharreko neurriak hobetzea. Aurrekontuen prozesuetan eragiten saiatzen dira, genero ikuspegia kontuan har dezaten. Horren adibide bat Tanzania da (hasieran), eta Kanada ere bai (gaur egunera arte).
- **GKEk eta parlamentuko indarrek elkarrekin abiarazitako ekimenak;** Hegoafrikan, adibidez.

Partaidetza soziala ekimen horien martxa egokirako eta iraupenerako funtsezko elementutzat hartzen bada, partaideen **prestakuntza** derrigorrezkoa da. Horretarako, ezinbestekoa da prestakuntza prozesu horietan planifikatutako jarduerak guztien xedeak, estrategiak eta urratsak argi edukitzea. Administrazioetik kanpo egiten diren ekimene kasuan, prestakuntzak aurrekontu prozesua bera ere hartu ohi du barne. Horren helburua zera da: prozedura formalak nahiz informalek aztertzea, eta boterea benetan non dagoen jakitea, harekin komunikatu ahal izateko (Budlender 2002a: 114).

Gaur egun, Estatu bakar batek ere ezin du esan bere aurrekontua generoarekiko erabat sentikorra denik. Alabaina, ekimen horien arrakasta ezin da soilik aurrekontuan egindako aldaketan araberatu. Hurrengo alderdiak ere funtsezkoak dira: emakumeak aurrekontuei buruzko gaitan bereziki inplikatzea, lankidetzaren esparruak sortzea, eta funtzionarioek eta botere karguak dituzten gainerako pertsonen generoarekiko duten ikuspegia aldatzea. Eginkizun horien emaitzak ezin dira epe laburrera ikusi, baina, denborarekin, gauzak aldatzen lagun dezakete³². Beraz, desegokia izango litzateke estrategia horien epe laburrerako balorazioa egitea, epe luzerako diseinatuta baitaude. Hala ere, estrategiak dinamizatze behar adinako presio sozialik egiten ez bada, geldialdia edo atzerakada gertatzeko arrisku handia dago. Izan ere, administrazioek epe laburrerako emaitzak eskatzen dituzte, eta emaitzak ezin dira hain denbora gutxian neurtu.

³¹ GKEen eta gobernuen arteko lankidetzaren maila nabarmen aldatzen da esperientzia batetik bestera; lankidetzaren estetik hasi (Tanzanian eta Erresuma Batuan, azkenaldian) eta distantzia kritikora, eszeptizismora eta mesfidantzaraino (Budlender, 2002 a: 99).

³² Budlender et al., 2002a: 19, 124.

7. Egungo lorpenak eta erronkak

Lehen aipatutako adituek ateratako ondorioetatik abiatuz, eta Bilboko Udaleko esperientzia pilotuaren bidez orain arte ikasitakoa kontuan izanik, zeregin publikoa aztertzeko modu berritzaile honen garapenean zehar lortutakoa azalduko dugu jarraian, eragozpen eta erronkekin batera. Gaur egun abian dauden ekimen berriek ere erronka berberei egin beharko diete aurre.

Hasteko, ekimen horien **lorpen nagusiak** azpimarratuko ditugu³³:

1. Gaitasun handiagoa sortzen dute emakumeei zuzenduriko baliabide publikoen benetako balioa zehazteko, dauden gabeziak agerian utziz.
2. Sexuaren arabera bereizitako datuen bilketa eta azterketa indartzen dute, ebaluazio eta aldaketa estrategia gehiago egiteko balioko duen informazio ugari emanez. Batzuetan, inpaktuaren balorazio zehatza beharrean, sailen gabeziei buruzko informazioa lortzen da hasieran (beren neurrien eragin zehatzari buruz sailek ez dakitena); horregatik, erresistentzia eragin ohi dute.
3. Politika eta programa askoren ustezko “genero neutraltasunari” aurre egiten diote, gobernuen sailak emakumeentzako aurrekontuak duen garrantziaz ohartaraziz, nahiz eta zenbait sail eta funtzionarioek gaiarekiko sentibiltate gutxi erakutsi.
4. Eraginkortasun ekonomikoa handitzen dute, Elsonek dioen bezala, kostuak eremu ikusgaitik eremu ikusezina eraman baino egiten ez dituzten “ekonomia falsuak” galaraziz.
5. Gobernaketa ona bultzatzen dute; hau da, aukerak handitzen dituzte biztanleriari ondasunak zein zerbitzuak modu zuzen, eraginkor eta arduratsuan eskaintzeko. Horretarako, ezinbestekoa da gardentasuna, erantzukizuna eta partaidetza, eta baita nazioarteko konpromisoak ezartzea ere.

Lorpenak asko diren arren, hainbat **eragozpen** ere badaude. Australiako esperientzia aitzindaria abiarazi zenetik (denboran luzeena izan da), hainbat eragozpen sortu dira geroago azaltzen joan diren ekimenean:

1. Sexuaren arabera bereizitako daturik edo baliabideen gabezia gobernuen programak ebaluatzeko.
2. Burokrazia ez dago konprometituta, eta gobernuak mugagaitasun politikoa jarri dizkiote estatu sistemaren barruan egindako (auto)kritika publikoari (kritikak arintzeko presioak).
3. Aurrekontuaren mugak. Aurrekontua epe laburrerako esleipenez osaturik dago. Esleipen horietan, programa oso orokorrak azaltzen dira eta datuak ez daude sexuaren arabera berezita; beraz, oso zaila da sexuen arabera eragina aztertzea.
4. Generoari buruzko ideia partzialak. Politiken ustezko neutraltasuna oso zabalduz dago sail batzuetan, batez ere ekonomikoetan; horren ondorioz, ez da aitortu nahi izaten sexuaren arabera aurrekontuak eragin desberdina duela.

Orain arte burututako GIA esperientzietan sortutako eragozpenak kontuan izanik, zera ondoriozta dezakegu: bidezko genero harremanak bermatuko dituen aurrekontu prozesu bat lortzeko, **printzipio edo alde aurreko baldintza** batzuk bete behar dira.³⁴

1. Borondate politiko aktiboa. Aurrekontuek prestatu dituen erakundearen lehentasun politikoa islatzen dituzte. Beraz, eraginkorrak izateko, GIA ekimenean genero berdintasunaren aldeko konpromiso politikoa behar dute, eta konpromiso hori nazioarteko legezko tresnen bidez formalizatu behar da. Borondate politikoa eraginkorragoa da aktiboki aitortzen eta adierazten denean. Beraz, oso garrantzitsua da arau instituzional nahiz politikoen lehentasun eta premia hori jasotzea.
2. GIAekiko kontzientziazio eta defentsa prozesua: gobernuak, parlamentuak eta gizarte zibileko taldeak prozesu honetan zenbat eta inplikatuago egon, prozesua orduan eta iraunkorragoa eta eraginkorragoa izango da. Izan ere, ez da soilik gobernuen lehentasun politikoen aldaketan menpe egongo.
3. Gardentasuna eta partaidetza: genero ikuspegiko aurrekontuen aldeko ekimenean arrakasta izateko, aurrekontu prozesua gardena izan behar da. Aurrekontu prozesuak

³³ Budlender et al., 2002a: 15; Sharp eta Broomhill (1990), Hewitt eta Mukhopadhyay, 2002a: 55.

³⁴ EBko Emakumeen eta gizonen aukera berdintasunerako Batzorde Aholkularia, genero aurrekontuei buruzko 2003ko txostenean.

emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua erakutsi beharko luke; bestalde, aurrekontuetan eta genero kontuetan adituak diren pertsonen hartu beharko lukete parte prozesu horretan, eta gizarte zibilak ere bai.

4. Aldez aurretiko beste baldintza batzuk hauek dira: koordinazioa, gaitasuna, tresnak, eta prozesu horiek giza nahiz finantza baliabideez hornitzeko beharra (EBko Aukera Berdintasunerako Batzorde Aholkularia, 2003:6).

Gaur egun, oraindik **erronka** asko gainditu behar dira ekimen horiek aurrera eramateko. Esperientzietan zehar aipatu diren artean, hamaika puntu azpimarra ditzakegu:

1. Aurrekontu osoa ikuspegi horretatik aztertzeke premia. GIAek aurrekontu osoak eta aurrekontuko programa bakoitzak duen eraginari buruzko ikuspegi orokorra eman behar dute, genero berdintasunerako xedeei dagokienez, bai gastuen aldetik eta bai sarreraren aldetik. Urrats garrantzitsu bat zera da: genero berdintasunaren gaia sail guztiei dagokiela ulertzea; mota askotako programei dagokiela, ez bakarrik genero berdintasunarekin zuzenean loturik daudenei.
2. Epe ertainerako plan ekonomikoentzat genero azterketa gehiago egiteke premia. Izan ere, erabaki makroekonomiko horiek ezarri beharreko politiken maniobra marjina murrizten dute. Horretarako, xede makroekonomikoek genero dimentsio bat dutela aitortuz hasi behar da.
3. Aurrekontuek ugalketako lan kargan duten eragina kuantifikatzeko premia. Suitzako kasua izan da eragin hori ganoraz kuantifikatzen saiatu den banaketako bat³⁵. Besteak beste, denboraren erabilerari buruzko datuak sexuaren arabera bereizita edukitzearen garrantzia islatu du esperientzia horrek. Ildo horretatik, oso erabilgarriak dira denboraren erabileraren banaketari buruz azkenaldian Estatu askotan egiten ari diren ikerketak; hala ere, datu horiek ez dira erabiltzen GIAetan. Horrelako ikerketak aldizka eta sistematikoki egin beharko lirakeke.
4. Genero adierazleak eta jarduera, emaitza eta eraginaren adierazleak prestatzen jarraitzeke premia, bai gastuei eta bai sarrerei dagokienez.

5. Programak modu eraginkorrean koordinatzeko premia. Horretarako, jarraibide argi batzuk egon behar dira, ministerio/sail guztiak estrategia hori garatzera behartu dituztenak.

6. Emakumeek enplegu publikoan parte hartzeke premia, bai kopuruari dagokionez eta bai administrazioko goi karguei dagokienez.

7. Sektore publikoaren eta pribatuaren arteko kontratuetan genero oreka lortzeke premia.

8. Aurreko puntu guztietan aurrera egiteko, ezinbestekoa da Administrazioako sail guztietako langileak prestatzea eta sentsibilizatzea, batez ere Ekonomia eta Ogasun Sailekoak. Langile horiek, izan ere, genero kontuak sail sozialekin loturik daudela pentsatu ohi dute; horren ondorioz, ez dira konturatzeko generoaren eta politika ekonomikoaren artean dagoen loturaz.

9. Gizarte zibilar partaidetzarako eta erabakiak hartzeke benetako bideak ireki behar zaizkio. Horrela, elkarrenganako mesfidantzak gaindituko dira, eta modu eraginkorrean presioa egin ahal izango da estrategia hau abiarazteko.

10. Ekimen horiek denbora luzez iraun behar dute. Izan ere, aurrekontuaren proiektua egiten denetik bere egikaritzari buruzko datuak biltzen diren arte denbora asko igarotzen da, gutxienez bi urte. Gainera, prozesu hori erakundearen ohituretan sartu behar da, aldaketa lortzeko. Horrek administrazioaren ohiko jarduerak baztertzeari esan nahi du, eta mentalitate aldaketa epe ertain-luzera bakarrik lor daiteke.

11. Ekimen horiek proposaturiko aldaketak bultzatzeko ezinbestekoa da hainbat indar bateratzea. Izan ere, politika publikoetako aldaketak ez dira normalean proposamen bakar baten emaitza³⁶.

Genero ikuspegiko aurrekontuekin loturiko ekimenentzako erronken laburpen honek erakusten duenez, oraindik asko dago egiteko. Estrategia zabala eta sakona da, aukera eta arrisku handiak dituena. Politika publikoak genero ikuspegitik etengabe ebaluatuz gero, emakumeen bizi eta lan baldintzak hobetu daitezke, eta, ondorioz, komunitatearen gizarte ongizatea ere bai. Horrek, politikaren aldetik, zeregin publikoan

³⁵ Budlender, 2002 a: 116; Madoerin, 2007: 5.

³⁶ Budlender, 2005:11.

partaidetza soziala indartzea dakar. Horregatik, nahitaezkoa da genero berdintasunarekiko konprometitutako talde sozialek gero eta modu aktiboagoan parte hartzea ekimen horietan. Horrela bakarrik lortuko dugu administrazio publikoek beren kudeaketaren gardentasuna arautzat eta genero berdintasuna lehentasunezko xedetzat hartzea, erronka liluragarri honetan aktiboki inplikatur.

Laburtzapenak

GA: Genero Auditoria.

ASAL: Toki Agintaritzen Suediako Elkarte.

AAE: Andaluziako Autonomia Erkidegoa.

EAE: Euskal Autonomia Erkidegoa.

CIDA: Nazioarteko Garapenerako Kanadako Agentzia.

FUNDAR: Azterketa eta Ikerketa Zentroa (Mexiko).

GTZ: Alemaniako Lankidetzeta Teknikoa.

GKE: Gobernu Kanpoko Erakundea.

NBE: Nazio Batuen Erakundea.

GIA: Genero Ikuspegiko Aurrekontuak.

NBGP: Nazio Batuen Garapenerako Programa.

SIDA: Nazioarteko Garapenerako Suediako Agentzia.

EB: Europar Batasuna.

UNIFEM: Nazio Batuen Emakumearentzako Garapen Fonda.

EHU/UPV: Euskal Herriko Unibertsitatea/Universidad del País Vasco.

Bibliografia

Addabbo, Tindara, Diego Lanzi eta Antonella Picchio (2004): "On Sustainable Human Development: Gender Auditing in a Capability Approach". *Ekonomia Politikoko Saileko eztabaida materiala*, 467. zk.

Andia, Bethsabé eta Arlette Beltrán (2003): *Documento metodológico sobre el análisis del presupuesto público con enfoque de género: sistematización de las experiencias en la Región Andina*. Aurretiko bertsioa. UNIFEM-Andeetako eskualdea.

ASAL (2002): Active work for gender equality. Gender mainstreaming and the 3R-method in local government. Toki Agintaritzen Suediako Elkarte (Svenska Kommunförbundet). www.svekom.se/jamstalldhet

Budlender, Debbie, Diane Elson, Guy Hewitt eta Tanni Mukhopadhyay (2002a): *Gender budgets make cents: understanding gender responsive budgets*. Commonwealth Secretariat.

Budlender, Debbie eta Guy Hewitt (2002b): *Gender budgets make more cents. Country studies and good practice*. Commonwealth Secretariat.

Budlender, Debbie eta Guy Hewitt (2003): *Engendering budgets. A practitioners' guide to understanding and implementing gender-responsive budgets*. Commonwealth Secretariat.

EBko emakumeen eta gizonen Aukera Berdintasunerako Batzorde Aholkularia (2003): *Opinion On Gender Budgeting*. Europar Batasuna.

Europako Batzordea (2003): "Gender equality in development cooperation: from policy to practice- The role of the European Commission". *Development De 119*.

Eskandinaviako Kontseilua (2005): *Berdintasuna eta Finantza Publikoak - Generoarekiko sentikorrak diren aurrekontuei buruzko eztabaida agiria*. www.norden.org/gender.

Degraef, Véronique (2002): "Is 'gender budgeting' an inclusive part of the gender mainstreaming strategy in EU policies?" *Gender Budgets, Financial Markets, Financing for Development* izeneko Biltzarrean aurkeztutako komunikazioa, Otsailak 19-20. Heinrich-Boell Fundazioa, Berlin.

Elson, Diane (2002a): "Integrating gender into government budgets within a context of economic reform", hemendik aterata: D. Budlender et al. (2002a): *Gender budgets make cents: understanding gender responsive budgets*. Commonwealth Secretariat.

Elson, Diane (2002b): "Gender responsive budget initiatives: some key dimensions and practical examples". *Gender Budgets, Financial Markets, Financing for Development* izeneko Biltzarrean aurkeztutako txostena, Otsailak 19-20. Heinrich-Boell Fundazioa, Berlin.

Elson, Diane (2003): "Gender mainstreaming and gender budgeting" *Conference Gender Equality and Europe's future*. European Commission, DG Education and Culture and Jean Monnet Project. Brusela.

- Elson Diane (2006): "Gender equality, public finance and globalization", hemendik aterata: J. K. Boyce et al. (ed.), *Human development in the Era of Globalization: essays in honor of Keith B. Griffin*. Edward Elgar publishing Ltd. 239-256. or.
- Hernandez, Itziar eta Arantxa Rodriguez (1996): "Igualdad, desarrollo y paz. Luces y sombras de la acción internacional por los derechos de las mujeres". *Lan-Koadernoak*. Hegoa: Bilbo.
- Hewitt, Guy eta Tanni Mukhopadhyay (2002): "Promoting gender equality through public expenditure", hemendik aterata: *Gender budgets make cents: understanding gender responsive budgets*, Budlender, Debbie, Diane Elson, Guy Hewitt eta Tanni Mukhopadhyay. Commonwealth Secretariat.
- Jubeto, Yolanda (2007): "Experiencias europeas en Presupuestos con Enfoque de Género: una revisión crítica", *Ekonomia Feministari buruzko II. Biltzarra*. Zaragoza.
- Andaluziako Junta (2005): *Informe de Evaluación de Impacto de género del Presupuesto de la Comunidad Autónoma de Andalucía para 2006*. Aurrekontuen Genero Inpakturako Batzordea. Ekonomia eta Ogasun Saila.
- Lombardo, Emanuela (2004): *La europeización de la política española de igualdad de género*. Tirant lo blanch, Valentzia.
- Lombardo, Emanuela (2006): "Mainstreaming, evaluación de impacto y presupuesto de género. Conceptos y criterios", hemendik aterata: De la Fuente, M. eta Ortiz, L. *Els presupuestos amb perspectiva de gènere, reptes per als governs locals*. ICPS: Bartzelona, 85-116. or.
- Madoerin, Mascha (2007): "Gender-Responsive Budgeting initiatives in Switzerland: work in progress". Muenchenstein & Berne. Suitzako Konfederazioa.
- Neuhold, Brita (2005): "Focus on human rights and gender justice: linking the Millenium Development Goals with the CEDAW and the Beijing Platform for action". WIDE Austria.
http://www.eurosur.org/wide/UN/Neuhold_MDG05.pdf
- Sharp, Ronda eta Ray Broomhill (1990): "Women and government budgets". *Australian Journal of Social Issues*, 25 (1), 1-14. or.
- Sharp, Rhonda eta Ray Broomhill (2002): "Budgeting for equality: The Australian experience". *Feminist economics* 8 (1), 25-47. or.
- Sierra, Elisa (1999): *Acción positiva y empleo de la mujer*. Kontseilu Ekonomiko eta Soziala, Ikerketa atala.
- Stovski, Janet G. (1997): "Sesgos de género en los sistemas tributarios". *Tax Notes International*, FMI.
- Villota, Paloma de (2004): "Aproximación a la imposición personal española desde una perspectiva de género". *Ekonomia Kritikoari buruzko IX. Jardunaldietan aurkezturiko komunikazioa*. UCM: Madril.